

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2022-APIRILA-438.ZENBAKIA

# KARKARA

**ZENBAKI HONEKIN BATERA**  
+ GUKA ALDIZKARIA

MARTIN PERONA

**MUSIKA  
ETXEKOEN  
ODOLEAN**



## PUBLIZITATEA

**ANORGA TXIKI, S.L.**  
**KRISTALDEGIA**

Oria etorbidea, 4  
**LASARTE-ORIA**

anorgatxiki@gmail.com  
 www.cristaleriaanorgatxiki.com  
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 · ORIO  
 943-83 00 34  
 autolan13@hotmail.com

**AUTO - LAN C. B.**



**ARDORA**  
 arraindegia

Eusko Gudari, 4  
 © 943-09 28 17 ☎ 623 47 57 52  
 ardoraarraindegia@yahoo.com  
 ORIO



**arkaitz taberna**  
 orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terraza ederrarekin giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57

**azkue**  
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7  
 AIA-ORIO  
 943-83 51 86



**auto Azkue**

Olaskoegia z/g  
 AIA-ORIO  
 943-13 04 38

Carmen eta Txomin  
 ARRAINDEGIA

TXOMIN ARRAINDEGIA  
 Eusko Gudarien kalea, 44  
 943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA  
 Arizaga kalea  
 943-83 05 37



**fontana**  
 iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak

Zerbitzu teknikoa  
 24 ordu

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoek instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO  
 fontana-jul@hotmail.es  
 www.fontaneria-fontana.com  
 943-53 98 88 · 661 26 28 28



**IGLESIAS SARRAILAGILEAK**

iglesiascerrajeros@yahoo.es  
 www.iglesiascerrajeros.com  
 Erribera kalea, 14 · ORIO  
 637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

**Joseba**  
 AROZTEGIA · CARPINTERIA

687 683 427  
 josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOAK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- ARROZTEGIA OROKORREAN





# KARKARA 438

2022-APIRILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
ARNAITZ RUBIO APREA



## Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Iñigo Gaiton  
*Eguraren denboretan*
- 6 **Hitz tantak** Onintza Lete Arrieta  
*Maria Eugenia Atxega*
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Iñigo Gaiton  
*Etorbizuna, lokal hutsetan*
- 10 **Gutunak**
- 13 **Herrian galdezka**
- 14 **Elkarrizketa** Iñigo Gaiton  
*Martin Perona: "Musika jotzea herria egiteko modu bat izan da gure etxekoentzat"*
- 22 **Akuilua hartuta** Korrikako furgoneta  
*Korrika badator*
- 23 **Nire honetan** Onintza Lete Arrieta  
*Bakarra (II)*
- 25 **Ikasleak idazle** Orioko Herri Ikastola
- 26 **Oroimenaren kutxa** Iñaki Iturain
- Historiako naufragio tragikoak: 'Titanic' eta 'Virgen Carmeli'*
- 31 **Klik!** Karkara  
*Elkartasunaren hamaika aurpegi*
- 34 **Erreportajea** Aitziber Arzallus  
*Norbere buruarentzat tartetxo bat*
- 38 **Moila bazterretik** Aritz Pardina  
*Zaharrak berri*
- 39 **Euskara** Aitziber Arzallus  
*Noka saioak*
- 41 **Osasuna** Amaia Gozategi  
*Norberaren hazkuntza, ongizaterako bide*
- 42 **Plazan bazan**
- 44 **Zerbitzuak**
- 45 **Agenda**
- 46 **Hasi bertsotan** Malen Gurrutxaga

## KARKARA



TOKIKOM

### Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu 1. 20730  
AZPEITIA  
943-83 15 27  
karkara@karkara.eus  
www.karkara.eus

### Erredaktoreburua

Aitziber Arzallus  
**Erredaktore taldea**  
Iñigo Gaiton  
Onintza Lete Arrieta  
**Diseinu arduraduna**  
Ane Azkue  
**Publizitatea**  
Leire Martija

### Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Aritz Pardina  
Iñaki Iturain  
Saioa Perona  
Arnaitz Rubio Aprea  
Amaia Gozategi

### Banatzaileak

Endika Ruiz (Orio)  
Manex Dorronsoro (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

### Inprimategia

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)  
**Lege Gordailua:**  
SS-346/90  
**ISSN:** 1132-1105  
**Tirada:** 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO  
udala

## PUBLIZITATEA



# KAIOA

 **kaioa\_denda**  
 **www.kaioa.es**

# Gabon

TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7  
943-83 06 09



%100 etxean egina  
**PIZZERIA**  
**KALETA**

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46



## GARMENDIA

Higiezin Agentzia  
Aholkularitza  
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48  
Ibai Ondo, 1 · ORIO  
info@egarmendia.com



# KATU HORIA

albaritaritza klinika

ESTROPALARZ, 10  
20510 ORIO  
tel. 943 11 66 99

Larrialdiaok  
668891129

# ITZIAR KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23  
ORIO  
943-83 31 03



# KORTABERRI

arotz lanak

Imanol Illarramendi  
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



# Kolon Txiki

edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4  
ORIO  
Tel.: 943-83 00 44

# libe

dietetika  
elikadura aholkularitza

Eusko gudariak, 35 · ORIO  
(sarrera Arrantzale kaleatik)


943-53 64 94  
697 23 86 56  
libegarmendia@gmail.com  
www.libegarmendia.com



# kutixi


kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17



# LASTER DESATASCOS

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com  
www.desatascos.com  
 24 orduz 688 88 65 36 (Larrialdiaok)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

# Egurraren denboretan



IÑIGO GAITON

**Z**ura eta ura liburua izan dut esku artean azken egunotan. Argazkiekin eta testu laburrekin ondutako argitalpen bat da, eta benetan interesgarria egin zait liburuaren gaia: baporeak eta txalupak egurrarekin egiten ziren lehen, eta urte gutxiren buruan, material sintetikoek ordezkatu zuten egurra. Poliesterra eta beira zuntza nagusitu izanaren ondorioz, kofradia eta portuetako kolore biziak desagertzen joan dira, eta horrekin batera, identitate galera bat gertatu da, egileek azaltzen duten modura.

Sarrerako testuan, Euskal Herriko portuen *basamortutzeari* erreferentzia egiten dio Konrado Mugertza argazkilariak, koloreen eta freskotasunaren galera bati, besteak beste, poliesterra "beti berdina" delako eta falta zaiolako "egurraren noblezia".

Argazkilariak dotore jaso ditu irudietan "ontzioletako hormetan egiten ziren kolore probak, txalupa zaharren egurraren pintura geruzak agerian eta herdoilaren geografiak burdina zaharkituaren azalean", bere hitzekin dioen bezala.

Argazkiak hain dira koloretsu, bizi eta freskoak, non, orriak pasatu ahala, gure herriko kofradian eta moilan izaten zen usaina aditzea ere posible egiten den ia-ia. Esku artean hartuz gero, liburuak memoriaren hautsak harrotuko dizkio Orion urteak daramatzan edonori.

Gaia aldizkari honetan kokatuz, *Zura eta ura* liburuak eta Martin Peronaren elkarrizketak badute lotura. Perona arotza izan zen erretiroa hartu arte, eta lantokikoez gain, egurrarekin beste makina bat lan ere egin izan du: horien artean, Oteizaren Pietatearen erreplika eta hiru traineru (laugarrena poliesterrarekin eta beira zuntzarekin egin zuen). Portuen eraldaketara itzuliz, Itxaro Bordak liburuan dio mundu gero eta zuriago batera goazela, zapore eta usain gabea den mundu batera. Idealismo ariketatxo bat eginez, Martinen lokala Bordak aipatzen duen mundu berriaren kontrapuntu bezala irudikatzea gustatzen zait; bere tailerrean oraindik bizi-bizirik jarraitzen dute egurrak, haren usainak eta esku lanerako bokazioak.

Poliesterrak "onura ukaezinak" ere badituela aitortzen du Mugertzak liburuan, baina bere zurtasun "arunt, antzu eta berdintzailea" globalizazioaren alde ilunetako baten isla dela dio; hau da, "erabili eta bota", kontsumo azkarreko jendartearen erakusgarri. Material sintetikoak hobeto egokitzen dira bizi garen erritmo erora, baina egunotan pentsatu izan dut, agian zoriontsuago biziko ginatekeela egurrak markatutako denborak gehiago errespetatuko bagenitu; osasuntsu eta orekatuago bai behintzat, gure burua zurak eskatzen duen kontu, goxotasun eta arreta berarekin zainduko bagenu. ■■■

**MARTINEN LOKALEAN  
BIZI-BIZIRIK  
JARRAITZEN DUTE  
EGURRAK ETA ESKU  
LANERAKO BOKAZIOAK**

# Maria Eugenia Atxega

---

## TESTUA ETA ARGAZKIA: ONINTZA LETE ARRIETA

---

Maria Eugenia Atxega Beobide (Santio Erreka, Aia, 1962) futbol zalea zen Orioko Futbol Taldera gerturatu aurretik ere. Bulegoko atea lehen aldiz zapaldu zuenetik, berriz, klubeko arimaren zati garrantzitsua da. Zuzendaritzako kidea izateaz gain, bera da tabernaren arduraduna, eta boluntario lanean orduak eta orduak aritzen da; asteburuetan barraren atzean, eta astegunean, bulego zuloan.

**Mendibeltzen partidak diren bakoitzean tabernako barraren atzean ikusten zaitugu. Ordu asko izango dira...**

Batzuetan, bai. Egin kontu: pasa den asteburuan, larunbatean, 10:30ean infantil nesken partida izan zen, eta 10:00etarako joan nintzen txorizoak jartzera. 12:00etan, 16:00etan eta 18:00etan ere partidak egon ziren, eta bukatu arte ez nintzen joan etxera.

**Iluntzean, alegia.**

Iluntzean, bai. Eta igandean, eskola kirolekoak eduki genituen. 09:30ean hasi, eta 15:50era arte. 17:00etan, berriz, emakume seniorren partida: Orioko-Reala. Orduan ere, berdin.

**Zenbait unetan jende asko pilatzen da barraren bestaldean. Bakarrik moldatzen al zara?**

Egunaren arabera. Jende asko ibiliko dela aurreikusten dudanean, alaba etortzen zait laguntzera, eta hark ezin badu, klubeko besteren bat.

**Lan guztia boluntarioa da. Klubarentzat diru sarrera handia?**

Ez, lan asko ematen du, baina sarreraren %10 lortzen da.

**Edariez eta zorroko patatez gain, zer eskaintzen duzu tabernan?**

Txorizo egosia eta solomoa plantxan. Eskainiko nituzke solomoa gaztarekin eta hirugiharra ere, baina ez daukat sukaldean egiteko horrenbeste toki, eta ezin.

**Zuk ateratzen dituzun pintxoak ez al daude bokadiloetatik gertuago pintxotik baino?**

Bi euro eta hamar zentimo eskatzen ditugu trukean, eta uste dut ordainetan zor dugula ondradu ateratzea, ezta? Ume txikiei ez diet hain handia ateratzen, gainera. Eta haurren bat bi eurokoarekin etortzen bada, orain igo ditugulako edariak eta pintxoak bi eurotik 2,10 eurora, ez dizkiot hamar zentimoak erreklamatu.

**Malgutasuna dago, hortaz.**

Akabo, ba!

**Jendea ere ezagutuko da barraren atzean lanean.**

Bai. Amistade asko egiten da horrela. Gainera, klubeko delegatu ere hamalau urtez aritu nintzen, eta futbol zelai asko eta jende asko ezagutu dut. Haiez gain, Oriokon ibili den jendea ere etortzen da. Orain urte batzuk, esaterako, Añorgatik lau mutil etorri ziren taldera jokatzera; estimu handia hartu nien. Herrikoak estimatzen ditut, baina kanpotik etorri direnak bereziki zaindu behar direla uste dut.

**Arraunagatik esaten dute, baina Orion futbolerako ere afizio handia dago.**

Zalantzarik gabe. Kanpotik etortzen direnek ere hori esaten dute. Zarautzen bertan, kanpoko ekipoko zale gehiago egoten da harmailetan herrikoa baino. Hemen asko etortzen da.

**Jendaurreko lanaz gain, atzekoa ere egiten duzu, zuzendaritzan urte mordo baitaramatzazu.**

Aurreko zuzendaritzan hamalau urte egin nituen, eta oraingoarekin, zortzi. Hogeita bi urte zuzendaritzan. Zortzi gaude; justu samar. Orain gutxi hil zaigu Iñaki Lizaso kidea, gainera. Ikaragarritzko pena hartu nuen; hutsune handia utzi du.

**Denboran atzera eginda, zeu nola sartu zinen klubean?**

Kalean ginen batean, abuztuan, orduko Orioko presidentek senarrari laguntza eskatu zion, baina senarrak ez zeukan denborarik arrantzalea zelako, eta orduan ni animatu ninduten bien artean. Guri futbola betidanik gustatu izan zaigunez eta partidak ikustera joaten ginenez, baietz esan nuen, eta halaxe. Delegatu lanetan hasi, eta pixkanaka heldu nion tabernari. Eta gaur arte. ■■■



## Etorkizuna, lokal hutsetan

**ARGAZKIA ETA TESTUA:** IÑIGO GAITON

Bizi dugun garaiaren ezaugarriak kontuan izanik, Orio bezalako herrixka batean zaila da denda txikiak irekita mantentzea, eta are zailagoa, negozio berriei martxa ematea. Oztopoak oztopo, badira oraindik ilusio, amets eta proiektuak herrian gorpuzten saiatzen ari diren gazteak, zorionez. Irudimena, ofizioa eta milaka lanordurekin, eguneroko borrokan dihardute, haien etorkizunaz gain, gure herriarena ere ontzen. Talentudun gazte ugari dugu herrian, eta hutsik dauden lokalak ere bai, han eta hemen. Herri mailako proiekturen batekin, lokal komertzialak gazteentzako eskuragarriago jarri beharko lirateke; batetik, hasiera orok behar izaten duen bultzada emateko, eta bestetik, kaleak bizirik mantentzen ere lagunduko lukeelako. Jon Alkain irudian, plazatik metro gutxira ireki duen lokalean. ■■■







## Erraustegia plazara: 'Lau marru, mila egi!'

### IRRIPARRA BERRESKURATU!

Zer ari ote zaigu ekartzen Andatza magaleko erraustegia egunero-egunero ingurura? Airea, lurra, ura eta izadia salbu ote dira ezkutuko kontrol edo deskontrol batean erretako era guztietako milaka tona hondakinetatik? Zaldibarren luizia gertatu ostean soilik igo al ziren ingurugiroaren toxizitate mailak? Zer ote dakar zabortegei inguruetan intoxikazio maila oso altuak sortu dituen zaborra etxe ondoan erretzeak?

Ba egia esan, hobe ez jakinda. Onena genuke, berehala tximinia horiek itzali eta zaborren kudeaketa egoki bat egiten hastea. Gure agintariak ez daude, ordea, bide hori hartzeko. Argi dago, edozein prezioan kamioiak hondakinez gainezka nahi dituztela. Bestela, zertarako eraiki ote dute Gipuzkoak sortzen duen hondakin kopurua baino askoz tona gehiago hartzeko gaitasuna duen erraustegia?

Horren aurrean hainbat herritarrek borondatez Zubietako erraustegiak inguruan sortzen duen kutsadura ikertzeko hautua bere gain hartzea erabaki zuten. Lehendabiziko ikerketa da, lehendabiziko aztarnak, hondakinak errausten hasi aurretik hartu direnak; eta emaitzek urtez urte sortzen ari den pilaketa toxikoa adieraziko dute.



Zubietako erraustegia. UTZITAKOIA

Horrenbestez, Iriparra Berreskuratuk ikerketa hori laguntzeko aukera emango dizue apirilaren 30ean. Etxeluzue gaztetxean izango den herri bazkarian parte hartzeko deia luzatzen dizuegu. Patata minak, babarrunak eta bizkotxo goxoak jateaz aparte, jai giro ederra izango da. Haurrentzat slacklinea, goitik behera, skate parka eta hainbat jolas izango da, eta bazkalostean, kantatzeko eta txalaparta entzuteko aukera. Jarraian, 20:00etan hasita, Marmol

**"ERRAUSTEGIAK  
ERAGITEN DUEN  
KUTSADURA IKERTZEN  
LAGUNTZEKO AUKERA  
APROPOSA IZANGO DA"**

(Bilbo), Fly Shit (Bergara), Nastelen (Alkiza) eta Mate (Zarautz) taldeek kontzertu bana eskainiko dute.

Beraz, gogorik baduzue behintzat, aukera bikaina duzue gure etorkizuna argitzen laguntzeko.

**Haurrek eta nerabeek  
ere eskubideak  
dituztelako!**

### ORIOHEZKUNTZAHERRIA

Urte aldrebesak izan dira pasa berri ditugunak, pandemia dela eta gure egunerokoa eta egiteko moldeak hankaz gora jarri dira. Tentsio momentuak ere asko izan ditugu eta zetorrena ikusteko laino itxia parean. Orain egoera lasaia dagoen honetan, badirudi komunikazioa ere errazagoa izan daitekeela eta herrian hezkuntzan lan egiten dugun

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

eragile batzuk uste dugu gure haur eta gazteek bizitakoaren aurrean aitortza behar dutela. Aitortza horri erantzutera dator, besteak beste, OrioHezkuntzaHerrian taldetik otsailaren 22an hezkuntzako langileon artean abiatu genuen sinadura bilketa. Jorratu genuen testuari, gaur-gaurkoz, 78 langilek ematen diote babesa. Hona hemen testu horren laburpena:

"Hezkuntza arloan, duela bi urtetik hona, hainbat eta hainbat neurri murriztaile izan ditugu —konfinamenduak eta protokoloak tarteko—. Hezkuntzako profesional eta arduradunok bi urte hauetan presioa, beldurra, ardura, barne-borrokak... sentitu ditugu, inoiz baino gehiago. Eta, oro har, isiltasuna izan dugu nagusi, barne mailan zein kanpora begira.

Lanbide eta bokazioz landu eta hezi behar ditugun oinarrizko balioak alboratu egin ditugu...

Aipatutako neurriek — musukoa, burbuilak, distantzia eta kontaktu izateagatiko zein sintomarik gabeko berrogeialdiak—, ordea, hankaz

## "GURE BETEBEHARRA DA IKASLEAK ERDIGUNEAN JARTZEA; EUREN ESKUBIDEEN ALDE JARDUTEA"

gora jarri dituzte berez dagozkigun ardura zein jardunbideak. Eta kalteak eragin dituzte haur zein nerabeen funtsezko eremuetan, eta kaltea eragiten jarraitzen dute euren garapen integralean:

Egungo egoeran hezkuntza protokoloak indarrean egoteak Haurren Eskubideen Aldarrikapeneko eskubideak urratzen ditu, baita haurren interes gorena bermatzearena ere (Adingabeen babes juridikoaren inguruko 1/1996 Lege Organikoaren bigarren artikuluan onartua, eta Haur eta Nerabeen Babes Sistemaren aldaketari buruzko 8/2015 Lege Organikoak ordezkatu zuena).

Hori dena kontutan hartuta, euskal pediatriaren eskariarekin bat eginez, 'normaltasunera itzultzeko' prozesuan haurrak lirakeela uste dugu. Izan ere, egoera larria dela deritzogu, hein batean gure isiltasunak eta aurretiko prebentzio ezak ere eragindako egoera izanik.

Hezkuntzako profesional eta arduradun gisa horrela dagokigulako, haur zein nerabeek gizartean izan beharko luketen tratua eta lekua zein den hausnartu beharko genuke. Bitartean, orain da unea, egoera larri honi aurre egiten hasteko, ausardiaz eta arduraz.

Gure betebeharra delako ikasleak erdigunean jartzea; euren oinarrizko eskubideen, garapen integralaren eta interes gorenaren alde jardutea.

Hezkuntzaren xedeak lortzeko garatu nahi ditugun kompetentzia horien eredu izan behar dugulako.

Hori guzti hori dela eta, idatzi hau gure sinaduraz babesten dugunok, onartzen dugu haur eta nerabeek edozein norbanakok bezala eskubideak dituztela. Eta honako eskaera hauek egin nahi dizkiegu Hezkuntza Saileko arduradunei: -Hezkuntza protokoloak bertan behera uztea, bere osotasunean.

-Hezkuntza protokoloek jarraiki hartu diren neurriek haur eta gazteengan eragin dituzten ondorio eta kalteak arloz arlo aztertzea.

-Ondorio eta kalte horiek erreparatzeko esku-hartzeak martxan jartzea". ■■■

## JAIOBERRIAK

- **Laida Otaño Lizarralde.** Orion, otsailaren 22an.
- **Kea Gesalaga Aranburu.** Orion, martxoaren 13an.
- **Haider Saubhani Shaheen.** Orion, martxoaren 13an.

## HILDAKOAK

- **Avelino Blanco Leis.** Orion, otsailaren 24an. 77 urte.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. **Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.**

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

### KOMUNIKAZIO MULTIMEDIA



egunkari

**1**



telebista

**1**



**4**  
aldizkari



**7**  
atari digital



**B**

BALEIKE

**K**

KARKARA

**erlo**

ERLO



MAXIXATZEN

**UH**

UROLA KOSTAKO  
HITZA

**U**

UZTARRIA

**ZH**

ZARAUZKO  
HITZA

# Udako ordutegia edo negukoa, zein duzu nahiago?



## ESTIBALIZ ARRUTI

"Udakoa, zalantzarik gabe. Lehengoan aditu bati entzun nion negukoa hobea dela osasunarentzat, gizakion bizi eritimoarentzat egokiagoa omen da. Hala izango da, baina arlo sozialari erreparatuz gero, nik nahiago dut udakoa, arratsalde partean beranduago iluntzea eta lanetik ateratakoan argi ordu batzuk izatea. Egia esan, neguko egun ilunak atzean uzten joatea gustagarria egiten da, tenperaturak pixkanaka epeltzen doazela sentitzearekin batera. 2 urteko alaba txikia izanik, eguraldi onarekin errazagoa da batera eta bestera ibiltzea eta denok gozatzeko moduko planak egitea. Izurritearen ondorioz gogorak izan dira azken bi neguak, eta iruditzen zait guztiok merezi dugula udaberri eder batez gozatzeko aukera".



## MAITE HUEGUN

"Udako ordutegia nahiago dut, egunari beste ukitu bat ematen diolako. Lanetik nahiko berandu irteten naiz, 20:30ean, eta neguan, ordu horretarako, hotz eta ilun egiten du; hortaz, lanetik etxera joaten naiz gehienetan. Ordu aldaketarekin, ordea, lanetik atera eta artean erabat ilundu gabe egoten da, eta argitasun eta epeltasun horrek beste bizipoz bat ematen du. Lanetik irtendakoan gustatzen zait hondartzara buelta bat ematera joatea, eta egun eguzkitsuetan ordu horretan ere goxo egoten da hondartzan. Lagunekin kalean egoteko ere alde ederrekoak izaten dira uda aldeko gau epelak. Azken bi urteak nolakoak izan diren ikusita, badaukat horrelako gaualdiez disfrutatzeko gogoia, ordutegirik eta bestelako mugarik gabe".



## AMANE ERKIZIA

"Neguko ala udako ordutegia aukeratu behar banu, niri, zalantzarik gabe, gehiago gustatzen zait udako ordutegia. Izan ere, arratsaldeetan beranduago iluntzea dakar, eta nahiago izaten dut. Ez ditut eskolaz kanpoko jarduera asko, baina sofbolean aritzen naiz, eta entrenamenduak 19:00etatik 21:00etara izaten ditugu. Horregatik, ilunduta jardun ala egun argiz, aldea dago. Gainerakoan, ordu aldaketek ez didate eragiten goizean jaikitzerakoan eta, berdin-berdin lortzen dut esnatzea, eta nire ingurukoei ere ez diete eragiten. Hori bai, noiz edo noiz ahaztu izan zaigu ordularia edo iratzargailua aldatzea. Zortez, ez naiz horregatik eskolara berandu iritsi izan inoiz". ■■■

# "Musika jotzea herria egiteko modu bat izan da gure etxekoentzat"

MARTIN PERONA MUSIKARIA

Martin Peronak omenaldia jasoko du maiatzean Orion, Andoaingo Gora Kale Txiki txarangaren eskutik. Omenezko ospakizuna aitzakia hartuta, KARKARA Peronaren tailerrera ino bertaratu da, berak eta etxekoek musikarekin izan duten harremanaz hitz egitera. Ontzigitza eta Jorge Oteiza ere izan ditu ahotan. Testua: **Iñigo Gaiton**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

**M**artin Peronaren mundua zein den ulertzeko, nahikoa da anbulatorioaren ondoan duen tailerraren parera hurreratzea. Erreminta mordo bat du han, partiturak atrilean jarrita, egunkarietako zatiak eta argazki zaharrak paretetan, lauzpabost instrumentu eta atzealdean, eskuz egindako piraguak, beste gauza askoren artean. Urteen joanaren markak nabarmenak dira lokalean; iraganak presentzia handia du joandako senitarteko, lagun eta une berezien argazkietan eta gordetako objektuetan. Hala ere, lokalean ez da ur geldirik, eta Martinek martxan jarraitzen du; musika jotzen batzuetan, artisauek lanean besteetan, oparoa da bere produkzioa. **Peronatarrok musikarako grina handia izan duzue betidanik. Nondik datorkizue afizioa?** Karlos, gure aita, izan zen etxeko aurreneko musikaria. Umetatik izan zuen musikarako grina, baina herrian ez zuen ikasteko aukerarik izan, ez

zuen oinarrizko ezagutzak erakutsiko zizkion inor topatu. Urteek aurrera egindakoan, soldadutza garaian suertatu zitzaion musikan murgiltzeko aukera. Aita zerbitzu militarrean sartu aurretik, Francok preso hartutako atxilotuak Aiako Harrietan lanean ibili ziren. Izugarri gogorrek ziren egiten zituzten lanak, tunelak eta errepideak eraiki ahal izateko mendia botatzen jarduten zuten. Preso horiek guztiak handik eraman zituzten gerra bukatutakoan, eta lanek segida izan zezaten, soldadutzako gazteak eraman zituzten Aiako Harrietara.

Aitak aurreikusitako zuten zer panorama izan zezakeen han, eta soldadutzako lagun batek musika banda militarrean sartzeko aukera jarri zion eskura. Oraindik ez zekien musikarik jotzen, baina lagunak esan zion nahikoa zuela instrumenturen bat lortu eta hura eskuan zuela hara azaltzea. Hala, Oriora etorri eta Felipe Arostegiri azaldu zion bere egoera, Orioko Bandaren zuzendariari. Hark soberan zuten klarinete bat laga zion, eta hura eskuan zuela itzuli zen soldadutzara. Bandan sartu zenean, lan





Perona eskuinaldean, aitarekin eta Abel ilobarekin batera.



txikiak egiten jarri zuten aurrena: atrilak ondo jarri, partiturak jaso, erratza pasatu... Zorionez, giro horretan musika ikasten hasi zen, eta mendiko lan gogorretatik ere libratu zen.

Soldadutza bukatutakoan, Orioko Bandan sartu zen aita, eta bizi osoan jarraitu zuen musika jotzen eta ikasten, beti bere kabuz.

**Eta zuek nola jaso zenuten aitaren afizioa?**

Bandan beti falta izaten zen bonbo jolea. Normalean herriko gaztetxoek jarduten zuten horretan, eta laga egiten zuten banda, koskortu ahala itsasoan lanean hasten zirelako. Horixe pasatu zitzaion nire anaia zaharrari, Inaziori, eta nik hartu nuen haren tokia.

[Elkarrizketa eten behar izan du Martinek, lokalean izandako bisita bati kasu egiteko. Elkarrizketak iraungo duen ordu eta erdian, beste bizpahiru lagunek ere joko dute atea. "Zer Martin, gaur ez al da musikarik?" galdetu dio lagunak irribarrez].

Bonboa jotzen hasitakoan, oinarrizko kolpe eta erritmoak ikasteko aukera izan nuen bandan. Solfeorik eta halakorik jakin gabe, musika munduan murgiltzeko aukera paregabea izan zen hura, ikaragarri ikasi nuen herriko musikariekin batera. Igandero jotzen genituen plazan dantzarako piezak, eta astero jo behar horrekin, erreperitorio aberasgarria barneratu nuen. Gero, klarinetearekin hasitakoan, ezagutzen nituen kantua jotzen nituen bandarekin, eta besteetan, isilik egoten nintzen, entzuten. Hura izan zen nire musika eskola, beste askorena bezala.

**Gerora, hainbat instrumentu jo izan duzu txaranga eta bandetan.**

Bonboarekin trebatu eta gero, aitik klarinetea jotzen erakutsi zidan. Klose metodoaren bidez ikasi nuen, liburu handi batekin. Egia esan, bikaina da liburu hori, asko ikasi nuen. Gerora, saxofoia eta tuba jotzen ere ikasi dut nire kabuz.

**Orioko Bandan hasi ondoren, urte luzez beste herrietako txaranga eta bandetan ere ibili zara.**

1970ean desegin zen Orioko Musika Banda. Aitak eta biok musika jotzen jarraitzeko gogoia genuen, eta Hernaniko Bandara juntatu ginen, aitak han lagun bat zuelako. 48 urte egin ditut haiekin jotzen, eta oraindik ere joaten naiz urtean pare bat alditan, San Juan bezperan eta Gabonetan egiten dituzten emanaldietan parte hartzera. Andoaingo Gora Kaletxiki txarangarekin ere duela urte askotatik jotzen dut, eta baita Getariako Bandarekin ere.

**Aitarengandik jaso zenuten zaletasuna anaiok, eta zuek ere pasatu diezue hurrengoek. Ohikoa izan da zuen etxeko lauzpabost lagun herriko txarangan ikustea. Transmisio horrek batu al zaituzte familia modura?**

Musika gure etxekoentzat afizio eta bizigai handia izan da. Ez gara izan musikari onak, baina oso jardunzaleak bai, eta indar horri eusten diogu oraindik ere. Musikaren bueltan famili giroan gozatzeko aukera izan dugu, eta horrek balio





Martin Perona, saxofoiarekin entsegua egiten bere lokalean.

**"GURE AITA IZAN ZEN FAMILIAKO  
AURRENEKO MUSIKARIA, ETA HAREN  
INDAR BERARI EUSTEN DIOT"**

**"ARANTZA BAT DUT, ORION  
LEHENGOA BEZALAKO MUSIKA  
BANDA BAT EGITEA LORTU EZ IZANA"**

**"OTEIZA OSO ONDO PORTATU ZEN  
NIREKIN, ASKO APREZIATU ZUEN  
EGINDAKO AHALEGINA"**

handia du guretzat. Egia esan, modu naturalean eman da aipatzen duzun transmisio hori.

**Musikari onak ez dakit, baina zuek baino herrikoiagoak gutxi izango dira. Herriko txarangak zuen etxeko indarrari esker eutsi dio urte luzez, Iñigo semeak tronpetarekin behin baino gehiagotan jarri izan du Donostiako Alde Zaharra dantzan Kontxako estropadetan, eta adibide gehiago ere jarriko genituzke.**

Hori hala da, bai. Jendarteari ekarpena egiten saiatu gara beti musikaren bidez, laguntzen; hau da, herria egiten ahalegindu gara musikarekin, jendeari zerbait ematen, umiltasun handiarekin.

Zentzu horretan, arantza bat geratu zait barruan: ahaleginak egin arren, ez dugu lortu Orion lehengoa bezalako musika banda bat izatea. Urte batzuetan txaranga on bat egitea lortu genuen, Herrikoia izena jarri genion. Hori indartu eta banda sortzea zen gure asmoa, baina bidean geratu zen proiektua.

**Txaranga hori al da azken hamarkadetan alironetan-eta ibili dena?**

Ez, hori geroago sortu zen, aitaren ekimenari esker. Haren indarrak mantendu zuen txaranga urte luzez: Inazio nire anaia bonboa jotzen,

Eusebio Lasarte txindatekin, ni saxofoiarekin, Daniel Barrentxea danborrarekin, Hernaniko errefortzu batzuk, herriko gaztetxoak...

**Aitaren izena izan duzu berriro ahotan. Zer lezio laga zizun?**

Musikarako gogo eta grina ikaragarriak zituen, eta hori nirekin daramat, indar berari eusten saiatzen naiz.

**Kasabaratas-etan auzoaren parte zen bere klarineta-aren hotsa. Urteetan aurrera egin arren, ia egunero egiten zuen saioa instrumentuarekin: udazkenean Erregeen kabalkadarako abestiak entzuten ziren haren leihoan, Gabonak pasatakoan Aste Santuetarako abestiak prestatzen hasten zen, eta udaberrian, alironetarako piezak...**

Kar-kar-kar... Bai. Musika jotzen orduak egiteaz gain, zenbat denbora pasatu ote zuen partiturak eskuz kopiatzen...

**Urteak joan eta urteak etorri, txarangarekin aliron piloak jotakoak zarete. Ba al da bereziki gogoratzen duzun banderaren bat?**

Aliron guztiak dira onak, ez dago txarrik! Kar-kar-kar... Baten bat seinalatzekotan, Kontxakoak beti izaten dira oso sentituak herrian, eta plazan sortzen den giroa ere halakoxea izaten da.

**Orain ospakizun batzuk galtzen joan diren arren, lehen txarangak urte osoan egiten zituen emanaldiak. Kalean jotzen diren artean, baduzu emanaldi kutunik?**

Erregetako kabalkada ederra izaten da Orion, eta oso gustura jo izan dut betidanik. Bestalde, lehen, Balearen Egunean festa ederra antolatzen zen herriko elkarte gastronomiko guztien artean, eta primerako danborrada izaten zen, hura gustatzen zitzaidan gehien, kuadrilla desberdinetako jendeak bat egiten zuelako.

**Musika izan dugu hizpide orain arte, baina lokal honetan argi ikus daitekeen modura, beste afizio batzuk ere badituzu. Eskura dituzun erremintei eta tresneriari erreparatuta, nabarmena da bizi osoan artisautzarako izan duzun bokazioa ere. Traineruak eta bestelako txalupak egindakoa zaren arren, zer ofiziotan jardun duzu lanean?**

Arotz modura jardun dut lanean bizitza osoan. Aita bernizatzailea zen, eta bere kontura egiten zuen lan, egurrarekin. 13 urterekin hari laguntzen hasi nintzen, eta 14 urterekin Arin y Embilen sartzeko aukera suertatu zitzaidan. Osaba zen hango tailerreko arduraduna, eta hark ireki zidan arotz modura trebatzeko bidea. Bestela, litekeena da beste ofiziotan batean bukatu izana. Hamabost urte egin nituen Arin y Embilen, eta ondoren, Xeyn ibili nintzen jubilatuta arte.

**Nola gogoratzen dituzu lanean hasi aurreko eskolako garaiak?**

Eskolara ez nintzen sekula gustura joan, behin ere ez. Haurtzaroko tragorik txarrenak eskolan pasatu nituen; hura beldurra, beldurra eta beldurra zen niretzat. Ez ziguten euskaraz egiten uzten, okerren bat eginez gero kaskarrean jotzen gintuzten, erremediorik gabe hango lezioak ikas behar hura... Tentsio handiarekin bizi izan nituen garai haiek. Niretzat, lanean hastea loteria tokatzea izan zen, hura bai zerua.

**Egurrarekin lanean urteak egin ondoren, aurreneko trainerua egin zenuen 1991n, eta gerora beste hiru ere bai. Nolatan animatu zinen? Zer suposatu zuen zuretzat orduko testuinguruan?**

Jesus Mari anaiak eta biok aspalditik genuen trainerua egiteko ametsa, gaztetan arraunean ibili ginen urteetatik. Nahiago nuen tostartean ibili ginen garaian egin izan banu, barruan arraun egiteko aukeraz gozatzeko. Askotan berotzen ginen, baina ez genuen aurrera egiten.

Estropalarietako traineruarekin gorabeheraren bat izan zuten urteren batean, eta erremediorik gabe bat behar zuten, Galiziatik ekarri zuten txalupa bat, hango talde batek lagata. Ordurako Zumaian egiten nuen lan, eta lantokian adarra jotzen ziguten: "Orio traineru faltan, eta galiziarrei eskatu behar bat...". Arraioak! Orduan bai, berotu eta trainerua egingo nuela agindu nion nire buruari. Remigio Lertxundi osaba jubilatuta berria zen orduan, arotz fina zen hura. Berak lagundu zidan, hasieran nire proposamena errezeloz hartu arren. "Trainerua? Ba al dakik zer lan duen horrek?", saiatzen zen niri hankak lurtean jartzen. Ez nuen atzera egin.

**Ba al zenuen ontzigintzari buruzko ezagutzarik? Nola ekin zenion lanari?**

Jesus Mari anaiak ordurako gordeta zituen Mutiozabal ontziolan bilatutako txalupen planoak. Haietako bat emateko eskatu nion, itxura ona zuen bat, nonbaitetik hasteko aukera izan nezan. Izan ere, ez nuen aurretik txaluparik behin ere egin, ez handi ezta txiki ere. Plantillekin-eta itxura pixka bat ematea lortu nuenean, Iñaki Sarasuari hots egin nion, martxan jarritako proiektua ikus zezan. Hura zen orduan arraun elkarteko presidentea. Itxura hona hartu zion egiten ari nintzenari, eta zuzendaritzarekin hitz egin ondoren, niri laguntzea erabaki zuten. Ilusioa egin zien herriko bat trainerua egitera animatu izanak, eta haiek ordaindu zuten egur guztia. Gero, zoritxarrez, ez zuten erabili estropalarietako Kortak begitan hartu zuelako.



**Traineruaz gain, zuk egindako piraguak ere badituzu hemen gordeta, lehengo urtean egurrezko ala bat egin zenuen lagun batentzat, eta orain, arraun surferako taula handi bat duzu sortze prozesu betean.**

Errioan ikusi izan ditut arraun surfean, beti banaka, eta pentsatu nuen interesgarria izan zitekeela bi lagun batera ibiltzeko ohol handiago bat egitea. Itxura eman diot dagoeneko, baina oraindik ez dago bukatuta. Kuriositatea izaten dut gauza berriak probatzeko, eta horrelaxe animatu naiz arraun surferako ohol hau egitera ere.

**Eskuz eginak dira zure traineru denak, eta hemen, lokalean ere artisau eran jarduten duzu zure saltsan. Zer iritzi duzu teknologia berrien inguruan?**

Lana asko errazten dute. Konparazio baterako, Jon Lasak ordenagailuarekin diseinatu zituen bere traineruak, eta baliabide teknologikoei esker era zehatzagoan lan egiten dela iruditzen zait. Eskuz akatsak egiteko aukera gehiago izaten da.

**Sehula ontzirik egin gabea izan arren, trainerua egitera ausartu zinen; ildo berean, arraun surfeko taula batekin ere ari zara esperimentatzen; Jorge Oteizaren *Pietatearen* erreplika egiteko enkargua ere halatsu jaso zenuen, aurretik eskulturagintzan eta zizelkatze lanetan inolako eskarmenturik ez zenuela. Zer moduzkoa izan zen esperimentzia hura?**

Orduko alkateak, Jose Migel Makazaga *Rubio*-k etxera hots egin zidan, bere bulegoan nirekin elkar-tu nahi zuela esateko. *Pietatearen* erreplika txiki bat

**Izan korrika laguntzailea**

**EKIN KORRIKARI!**  
12 euroren truke, garrantzitsuená lortuko duzu: AEKren euskaltegiei laguntzea. Horrez gain, pina eta txartelaren abantailak eskuratuko dituzu.

**LORTU TXARTELA!**  
AEKren euskaltegietan eta korrika.eus-en

22. korrika

**HITZEKIN**

Amurriolik Donostia  
2022ko martxoaren 3tik apirilaren 10era



Txaranga estropalariekin batera 1992. urtean, banderen bedeinkazioaren egunean.

erakutsi zidan eskuan, eta egurra zizelkatuz, irudi bera dimentsio handiagoan egingo ote nukeen galdetu zidan. Bolada hartan, nonbait, hartu-eman onak zituzten Oteizarekin, eta bere omenezko pieza bat jarri nahi zuten herrian.

Rubioren proposamena jasotakoan, nire burua ez nuen gai ikusten lan hura egiteko; arotza izanik, egurrarekin trebea nintzen ordurako, baina eskulturaren kopia bat egitea oso lan zaila iruditu zitzaidan. Banekien, gainera, pieza herrian denen bistan jarri nahi zutela, eta horrek atzerako handiagoa eragiten zidan. Alkateak, berriz, egiteko eta egiteko esaten zidan; beldurrik ez izateko, behar nuen egur guztia ekarriko zidatela, zerbait gaizki egin eta berriro hasieratik hasi beharko banu. Huts egiteko aukera izate horrek lasaitu egin ninduen, eta probatzea erabaki nuen.

Hala, osaba Remigiorengana jo nuen aholku eske, eta hark lagundu zidan oinarriarekin. Gaztaina aukeratu genuen lanerako. Gogoan dudanez, hemen, tailer honetan, atea itxita jardun nuen lanean, lotsa ematen zidalako pasarako jendeak pieza harekin lanean ikusteak. Zizelkatze lanetan berria nintzen, eta nire burua ez nuen eroso bilatzen.

**Oteizak parte hartu al zuen piezaren sortze prozesuan? Gustura geratu al zen zuk egindako lanarekin?**

Oteizak berak hartu zuen poz handiena erreplika bukatu eta paretean ikusi zuenean. Prozesuan zehar behin baino gehiagotan etorri zen hona, eta hemen ibiltzen zen atzera eta aurrera. Argazki batean ikus daitekeen modura, boligrafoarekin markak egiten zizkion egurrari han eta hemen, kolpeak ematen joan eta itxura ematen jarrai nezan.

Lanak bukatu genituenean, 2002an, Zarautzen zuen etxera gonbidatu ninduen, eta berak egindako eskultura bat oparitu zidan. Besarkada bat eman zidan gero, "*estoy muy contento con tu trabajo, eres un gran muchacho*" esanez. Asko apreziatu zuen nik egindako ahalegina.

**Ba al duzu berari lotutako anekdota edo pasadizo bitxi-rik?**

Pietatearen erreplikari lanean ari nintzela, prozesuko tarteren batean, Oteiza gaixotu egin zen. Pentsatu nuen lana ez nuela bukatuko bera hil aurretik. Eguerdian telebistari begira jarrita nengoen batean, albistegietan artistei emandako sari batzuei buruz ari ziren hizketan. Agidanez, Juan Jose Ibarretzek, orduko lehendakariak, domina bana eman nahi zien Oteizari, Eduardo Txillidari eta besteren bati. Oteiza ondoezak jota zegoela-eta, ez zen Gasteizera joan, eta

lehendakaria Zarautzeraino etorri zen saria ematera.

Egun berean, telebista itzali eta gutxira, Oteizak telefonoz deitu zidan, arratsaldean nire tailerrean izango zela esateko. Harrituta geratu nintzen. Lehendakariarengana joateko gaixorik zegoen, baina Oriora etortzeko arazorik ez zuen izan! Agidanez, harentzako garrantzitsuagoa zen hemen tailerrean egiten ari ginena, Ibarretxeren eskutik domina bat jasotzea baino. Oso ondo portatu zen nirekin.

**Gai orokorragoetara salto eginez, nola ikusten duzu mundua?**

Egia esatea nahi baduzu, lehen baino hobeto ez. **Eta Orio?**

Lehenagoaren aldean, euskara gutxi hitz egiten da herrian. Ume koskorak ginela, kanpotik etortzen ziren erdaldun gehienek gure artean sartu eta euskara ikasten zuten, kalean, eskolan, jolasean. Eskolan galarazita zegoen euskara, eta udaletxean ere gaztelania zen nagusi, ez zen beste aukerarik. Zentzu horretan, aurrerapen handiak egin dira, baina euskarak ez du lehenago osasuna. Lehenago batean, herriko bi aguazil, euskaldunak biak, erdaraz hitz egiten ari ziren pasieran kalean. "Euskal Herrian euskaraz!" oihu egin banie, haserretu egingo ziren. Normaldu egin da kalean gaztelania entzutea.

**Alboan duzun bonboak ikurrinak eta Arrano Beltza dauzka margotuta. Etxean betidanik izan al zarete abertzaleak?**

Bai. Gure amona, Gregori Ibargoien *Akaña*, abertzale sutsua zen, eta harengandik datorkigu.



Francoren garai latzenetan ere, Aberri Eguna ailegatzeko zenean, eskumuturrean ikurrina bat lotu eta estali eginen zuen. Herrian buelta bat egiten zuen apropos, ezagunei adarra jotzeko; haiengana hurreratu eta ikurrina erakusten zien, estalkia kenduta. "Aizan, kontu ibili hai!", esaten zioten lagunek ikaratuta. Gure amonak barrez erantzuten zien, "hau dun gure eguna!". ■

**ESKELA  
ZERBITZUA**

**karkara.eus webgunean  
eskela jarri nahi?**

Jarri harremanetan:

688 85 96 82

karkara@karkara.eus

Eusko Gudari kalea, 26



## Korrika badator

**B**esteetan baino gehiago itxaron dugu, hiru urte, hiru urte luze euskal errepideak zapaldu gabe. Hiru urtez garajejan sartuta, 22. Korrika noiz hasiko. Hiru urte euskararen aldarria lau haizetara zabaldu ez dudala. Baina, aurtengoan bai, urtebete gehiago itxaron ostean, tipi-tapa hasiko naiz.

Pandemia honetan ere korrika geratu beharra egon da, urtebetez atzeratu da nire lasterketa kutuna. Baina, tira, hasi naiz herdoila kentzen, pixkanaka-pixkanaka motorrak berotzen. Aurtengo Korrikarako inoiz baino gogo handiagoa dut, eta inoiz baino beharrezkoagoa da ekimena bera. Hitzetik ekintzetara

igarotzeko unea delako. Euskarak ezin baitu beste urtebetez itxaron. Azken urteetako murrizketak alde batera utzi eta ekiteko garaia da aurtengoa.

Egunak, orduak, falta dira lasterketari irteera emateko eta beharrezko prestaketak burutzen ari naiz. Jarri dizkidate argiak, musika ekipoa, eta marraztu dizkidate

**APIRILAREN 8AN  
05:00AK ALDERA  
IGAROKO DA KORRIKA  
ORIOTIK. ZARAUZTIK  
ETORRIKO DA**

aurtengo lelo eta ikurrak. Donostiara berandu hel ez nadin, Euskal Herriko txoko guztiak errepasatzen ari naiz furgonetan etorriko diren kide nekazekin. Orain, depositua bete eta prest nago, lekukoa zainduz milaka kilometro egiteko.

Ni bezala, prestatzen hasiak dira auzoetan, herrietan zein hirietan. Hasiak dira *Hitzekin* kanta entzuten, ikasten eta dantzatzen, hasiak kilometroak erosten ere, eta Korrikaren mezu eta aldarria zabaltzeko ekintza kulturalaz lepo dago agenda. Gure herrietako kaleak ere laster beteko dira etxeko txikiek eginiko peto koloretsu eta originalez. Errepika ezinak

HAUXE BAI JENEROA!



## NIRE HONETAN



ONINTZA LETE ARRIETA

## Bakarra (II)

**G**ure aitari buruzko iritzia inprentara iritsi aurretik damutu nintzen

idatzitakoaz. Zer behar neukan berataz idazteko? Halako burutazioekin egin nuen KARKARAko bulegotik liburutegirako bidea. Uxue Apaolazaren liburua eraman nahi nuen etxera, baina azkenean Eider Rodriguezen eleberria aukeratu nuen: *Eraikuntzarako materiala*.

Zer diren gauzak; nik 1.000 karaktere eskaini aita zenari, eta Rodriguezek 256 orri bereari. Bere ohiko *malaostiarekin* idatzi arren, samurra iruditu zitzaidan istorioa, eta bi alabon sentimenduak, antzekoak. Rodriguezenak ez bezala, gure aitak ez zuen alkoholarekin arazorik izan, baina ez zen, inondik ere, aingerua, hura ere. Askotan amorrarazi gintuen, askotan desesperatu, baina zein gurasok ez dio halakorik sentiarazi bere seme-alabei? Gogoan dut ahizparen etxean afaritan ginela esan niola, emozioari eutsi ezinik, haurdun nengoela. "Bazen garaia, itxaroten nengo!" erantzun zidan. 33 urte nituen nik; berak 50ekin izan zuen aurreneko alaba (hau da, ni). Baina bere erreakzioa itxura hutsa izan zen. Badakit Azkoitia erdiari erakutsi ziola biloben argazkia, esanez zeinen begi urdin politak dituzten biek –gure aitak ere hala zituen–, beste inork umeei begi urdinik ikusten ez dizkiegun arren. ■■■

diren petoz beteriko Korrika txikiek, helduoi Korrika badatorrela gogoraziko digute.

Kostata, baina hainbeste maite dudan lasterketa hastera doa. Hamar egunez, negarrak eta irriak ikusiko ditugu lekukoa eramaten; haur, gazte zein heldu. Berriz ere lehen lerrotik ikusiko ditut aldapa gora hauspoa justu duten irribarrez beteriko aurpegiak. Euria edo eguzkia egin petoarekin kaleetan zain egongo dira milaka euskaldun Korrika noiz iritsiko. Korrikaren zain, kale kantoietan urduritasuna agerikoa izango da aurten ere. "Badator! Entzuten da! Begira, begira, han dator furgoneta!"


bezalakoak entzunez harro pasatuko naiz, musika ozen dudan bitartean lasterketari bidea irekitzen.

Iritsi da barruak mugitu eta malkoak begietara ekartzen dizkiegun lasterketa. Aurten ere, milaka euskaldun, herri euskaldun baten alde Korrika babesteko ohorea edukiko dut, lekukoa Amurriotik Donostiara iristen dela ziurtatzeko zeregina. Laster azalduko naiz Orioko gainetik zuenera ere, eta, beti bezala, harrera beroa egingo didazuela ziur naiz. Beraz, oinetakoak lotu, utzi oinei libre eta ekin diezaiogun berriro Korrikari elkarrekin!

Sentitu, pentsatu hitzekin, denok Korrikarekin! ■■■

N: GIZONEK GERRA EGIN, HAUR-EMAKUMEEK PAIRATU





**Karkara**  
.eus





# Sexu heziketa lantzen

**L**ilima taldekoak etorri dira LH6ko ikasleengana lau saiko sexu heziketa ikastaroa ematera. Helburu bezala pertsonak sexualitatearen bizipen positiboa edukitzea eta norbera bere sexualitatea era osasuntsuan bizitzeko baliabideak eskaintzea izan da.

Sexualitatearen kontzeptuaren eta dimentsioaren zabaltasuna ezagutu dute, gizaki sexunduna izatea zer den eta bere sexuazio prozesua (maila fisiologikoan eta psikosozialean) positiboki onartzearen lanketan jardun dira, norberaren identitatea eraikitzeko eta onartzeko baliabideak eskainiz.

Saio guztiak bukatu ondoren, Jon eta Ane hezitzaileei elkarrizketa egin diete. **Nola moldatzen dira ikasleak zuen saioetan? Lotsatzen dira edo lasai hitz egiten dute beraien sentimenduen inguruan?**

Denetik egoten da, batzuk hitz egiteko irrikaz egoten dira, eta beste batzuetan, lotsa antzematen dugu. Denbora aurrera joan ahala, konfiantza hartzen eta irekitzen joaten dira. Kurioso da, baina gurasoei eskaintzen dizkiegun saioetan horiek gehiago lotsatzen dira ikasleak baino; ikasleak naturalago hitz egiten dute.

**Zeri buruz galdetzen dizuete ikasleek?**



Gorputzaren aldaketan, hilerokoaren, masturbazioaren, semenaren, maitasunaren eta lehen musuaren inguruan galdetzen digute gehien bat. **Zein helbururekin sartzen zarete ikasgela batean?**

Gela hori gurekin eroso eta seguru sentitzea izaten da lehedabiziko helburua. Gela bakoitzean zalantza eta bizipen desberdinak ateratzen dira, eta dagoen horri heldu eta lurra ematea izaten da gure jarduna. **Sexua zer den nola azaduko zenukete ikasle bati?**

Guk, normalean, ikasleei galdetzen diegu beraiantzat zer den sexua; galdera horrekin abiatzen gara. Gure helburua sexu hitzaren inguruko aurreiritziak desmuntatzea izaten da. Sexu hitzak mila interpretazio eduki ditzake. Gizarte honetan, sexua uler daiteke oso era desberdinetan, norberari buruan pizten zaion irudi hori era askotakoa izan daiteke, eta adinak ere eragina izaten du. ■■■

## Eskola lehen eta orain

**G**aur egun, teknologia berriak gehiago erabiltzen dira informazioa bilatzeko. Hori dela eta, ikastoletan liburuak gutxitu egin dira eta ordenagailuen erabilera handitu egin da. Lehen, liburuaren bidez erakusten zen, aldiz, egun, ordenagailuen, arbel digitalen eta pantailen bidez gehiago erakusten da.

Horrek baditu abantaila batzuk. Hasteko, ordenagailuen bidez, hau da, Interneten bidez, informazioa liburuetan baino azkarrago bilatu daiteke. Horrez gain, informazio gehiago bilatu daiteke iturri asko daudelako. Horrez gain, liburuak baino eramangarriagoa da ordenagailua, bai gutxiago pisatzen duelako, baita informazio guztia toki berdinean duzulako ere.

Baina teknologiak desabantailak ere baditu. Hasteko, ikastoletan dagoen diziplina gutxitu egin da, izan ere, irakasleei zailagoa egiten zaie ikasleak kontrolatzea une oro ordenagailuetan baitaude eta horiek lanean egon daitezke edo beste zerbait ikusten. Horrez gain, ikasle askori bista arazoak sortu zaizkie ordenagailua denbora askoan erabiltzeagatik. Gainera, kontuan eduki behar da, konexiorik ezean lana ezin dela egin.

Horrela, ondoriozta dezakegu, ordenagailuaren erabilpenak ikasleengan alde onak zein txarrak ekarri dituela. ■■■

# Historiako naufragio tragikoak: 'Titanic' eta 'Virgen Carmeli'



**IÑAKI ITURAIN** [iiturain@gmail.com](mailto:iiturain@gmail.com)

**ARGAZKIAK:** INTERNETETIK HARTUAK ETA

IÑAKI ITURAINEN ARTXIBOKOAK

Aurtengo otsailaren 15ean itsas istripu larria gertatu zen Ternuako uretan: itsaso txarraren ondorioz, Galiziako Villa de Pitanxo arrantzontzia hondoratu eta 21 marinel hil ziren; hiru bakarrik atera ziren bizirik Atlantikoko ur izoztuetatik. Tragediaren ostean, oraindik erantzun gabeko galdera bat dabil airean: zergatik itsasoratu zen barku hura, eguraldiaren iragarpenek ez itsasoratzeko gomendioa eman bazuten, oso itsaso txarra zetorrela eta?

Gugandik gertu ere gertatu izan dira naufragio larri askoak. *Euskal kostaldeko naufragioak 1976tik 2016ra* liburuan 43 kasu jasotzen dira, haietako bat da Pasaiaiko *Marero* arrantzontziarena. Ozeanoak irentsi egin zuen 1998ko abenduaren 20an, Gipuzkoako kostaldean, zortzi arrantzalerekin. Liburuaren egileak zioenez, «naufragioez idaztea ontzi horiek eta marinelek gure oroimenean berriz nabigatzea da, eta gure itsas ondarearen parte diren istorioak kontatzea».

Gizakiak itsasoan bidaiatzeko ontziak asmatu zituenetik, naufragio asko izan dira, eta gizaki askok utzi dute bizia ozeanoetan. Naufragioen historia eta literatura oso zabalak dira. Seguru asko, *Titanic* transatlantikoaren hondoratzea

da historiako ezagunena; hilabete honetan dira 110 urte (1912-04-14) istriputik. Ingalaterratik New Yorkera zihoan bere lehen bidaian, Ternuako kostaldetik 600 bat kilometrotara: gauez iceberg bat jo eta hondoratu egin zen. Barkuko 2.208 lagunetatik 1.496k bizia galdu zuten bertan. *Titanic*-en hildakoak asko izanagatik ere, ez dira ez icebergak, ezta galernak ere, marinelen etsai nagusiak. Ez. Gorrotoa izan da, gerra, kanoiak eta torpedoak. Gizakia gizakiaren hiltzaile!

Historiako itsas tragediarik izugarriena itsaso Baltikoan gertatu zen Bigarren Mundu Gerran (1945-01-30). Eguerdian, Wilhelm Gustloff gerrako ospitaleontzi alemaniarra Danzig-eko portutik abiatu zen tropa sobietarrei ihesi, errefuxiatuz beteta. Arratsean, -20 graduko tenperaturarekin, kubiarta ere jendez gainezka, 10.580 lagun zihoazen ontzian; 20:30ean bozgorailuetatik Hitlerren azken diskurtsoa entzun zuten; 21:08an, urpeko sobietar batek jaurtitako hiru torpedok gerraontzi alemana jo eta hondoratu zuten. 9.343 pertsona hil ziren.

Espainiako 1936-39ko gerra zibilaren barruan (1938-03-06), frankisten *Baleares* gerraontzia errepublikaren aldekoen torpedo batek hondoratu zuen, Murtziako kostaldean, Cabo de Palosen; 765 soldadu hil ziren, tartean Ambrosio Uranga Irigoien oriotarra. Hondarribia gogorago astindu zuen torpedoak, hildakoetako hamasei

hondarribiarrak ziren; eta 40tik gora, ondarroarrak.


## Mapileko 'San Jose' galeoiko altxorra

Duela zazpi urte, Karibeko itsasoaren hondoa 400 metrora itsasontzi bat aurkitu zuten, Cartagena de Indias-etik 30 miliara: 1708an ingeles kanoikaden ondorioz hondoratutako *San Jose* ontzia; Kolonbiako presidentek esan zuenez, hondoratutako barku batek sekula gorde duen altxorrik handiena zuen barruan: 22 milioi urrezko eta zilarrezko txanpon zeramatzan, espainiarrek Cartagenara Perutik ekarriak.


*San Jose* galeoia Aginagako Mapileko ontzian eraiki zen 1698an, Espainiako koroak eskatuta. 1.200 tona eta 22 metroko bi ontzi berdina eraiki zituzten, Indietara joan-etorrian zebiltzan barkuen zaintzarako: *San Jose* eta *San Joaquin*. 70na kanoi jarrita, 1706an, Ameriketara joan ziren hamar merkantziaontzik osatzen zuten flota zaintzen, 41 eguneko bidaian. Ingelesekin izandako borrokaldian 11 gizon bakarrik atera ziren bizirik, barkuan zihoazen 600 marineletatik.

## Baporea marrazo artean

Orioko *Maria Auxiliadora* baporea 1962ko otsailaren Senegalgo uretan zebilen arrantzan, marrazoz betetako itsasoan. Goizeko hiruretan,



1912ko apirilaren 9an Ingalaterrako Southampton-etik abiatutako transatlantikoak, Ternuako kostaldetik gertu zihoala, abisua jaso zuen inguruan iceberg asko zela eta arrisku bizian zeudela; baina barkuaren armadoreak ez zuen abiadura gutxitu nahi izan, ontziak azkar eta garaiz iritsi behar zuen New Yorkera. Ez zen inoiz ailegatu. Bi urte geroago, Europan piztu zen Lehen Mundu Gerraren harrokeriazko abisua izan zen 'Titanic'-ena.. INTERNETETIK HARTUA



Santa Klara eguneko arratsean sartu zuen galerna, Kantauri itsasoan gogoratzen den handiena eta hilkorrena. Baporezko makina zuten ontzi batzuek bakarrik lortu zuten lehorreratzea, arraunontziak eta belautziak hondora joan ziren denak. Enbatak Bermeoko 116 arrantzale hil zituen. 1912ko egun tragiko hartatik aurrera, zorroztu zituzten arrantzako segurtasun eta salbamendu neurriak Kantaurin. INTERNETETIK HARTUA



Bertsoak dioen bezala, arrantzaleek herio izan ohi dute zain barran, okerrik txikiena garesti ordainarazteko. Itsasoak asko eman ohi digu, eta asko kendu, herri honen historiako etengabeko harreman aberats eta tragikoan. 'Titanic'-en hondoratzearen urtean, 1912an, itsasoak hildako bost arrantzaile ekarri zituen Oriora.

guardian zegoen Martxiel Urkizuk ikusi zuen Bermeoko barku bat gainera zetorkiela kontroletik kanpo eta sutan. Martxielen marrua entzunda, denak altxatu, motorra martxan jarri eta abante eginda lortu zuten talka saihestea. Gertatu izan balitz, biak hondora. Sua itzaltzen lagundu eta, ikusita baporean ura sartzen ari zela, Bermeoko arrantzaleak *Maria Auxiliadorara* pasatu zituzten. Begiak malkotan, ikusi zuten nola hondoratzen zen *San Pancraccio* ontzia Afrikako uretan.

Donostiako kaian bada monumentu bat arrantzale baten oroimenez eraikia, hainbat aldiz bere bizia arriskuan jarri zuelako beste arrantzale batzuk itsasotik erreskatatzeko. *Aita Mari* zen, Zumaian jaiotako Jose Mari Zubia. *Aita Mari* 1966ko urtarrilaren 9an ito zen Donostiako badiako olatu handien artean, itsasotik Donostiara zetorren Getariko ontzi bateko bederatzik arrantzaleak arrisku larritik atera

ondoren olatu batek bera hondoratuta. Euskaldunon artean, *Aita Mari* da itsas erreskateen eredu nagusia. Donostian eta Zumaian kale banak dute haren izena, eta orain Mediterraneoan erreskate lanetan dabilen itsasontzi batek ere bai.

### **Bermeoko galerna izugarria**

*Titanic* hondoratu zen urte berean (1912-08-12) gertatu zen Kantauri itsasoan historia guztian ezagutu den galerna hilkorrena: Bizkaiko 143 arrantzale ito ziren uretan. Haietako 116 Bermeokoak ziren. 75 emakume geratu ziren alargun, eta 225 haur, umezurtz.

Goiz barearen ostean, arratsean galerna ikaragarria ekarri zuen, eta Bizkaiko uretan arrantzan zebiltzan ontzi gehienak hondoratu zituen. Ekaitzak Bizkaiko portuetako baporeak harrapatu zituen itsasoan, baina Gipuzkoakorik ez; Hondarribi, Pasaia, Donostia, Orio eta Getariko arrantzontziak ez ziren

itsasoratu egun hartan. Zergatik? Ordu batzuk lehenago, ez ateratzeko abisua jaso zuten. 1905ean Gipuzkoako Foru Aldundiak behatoki meteorologikoa jarria zuen Igeldon. Han, Aita Orkolaga apaiz zientzialari meteorologoa ari zen lanean. Hark pasatu zuen abisua arrantzale kofradietara, denborale ikaragarria zetorrela eta lehorrean geratzeko. Iragarpena ez zen iritsi Bizkaiko kofradietara. Garaiko teknologiak ez zuen horretarako eman.

Zarauzko parrokiaren apaiz egondako Aita Orkolaga hernaniarrak txikitatik erakutsi zuen meteorologiarako bokazioa. 14 urterekin, 1878an, enbata izugarri batek Aste Santuko larunbatean 300 arrantzale hil zituen; orduan hartu zuen Orkolagak itsasgizonen bizitzak salbatzeko erabakia. Horretarako, aparatuak aztertzen eta asmatzen hasi zen, eguraldiaren aurreikuspenari buruzko sinesmen zaharrak alde batera utzita. 1900. urtean, denak harritu



Orain dela 70 urteko apirilaren 22ko egun hartan ia herri osoak segitu zuen zuzenean erriko itsasadarrean gertatu zen naufragio tragikoa, baita hildako arrantzaleen lehorreratze tristea ere. Haur, gazte, heldu eta zahar, neska eta mutil, denak izan ziren heriotzaren lekuko zuzenak.

zituen denborale bat iragarri eta portuetara abisatuz; ekaitza iritsi zen, baina arrantzaleak lehorrean ziren, abisua jasota.

### **Orioko barran bost gizon ito**

Hilabete honetan (apirilak 22), 70 urte beteko dira Orioko barran *Virgen Carmeli* baporea hondoratu eta bost arrantzale oriotar itota hil zirela. Udaberriko egun tragiko hartan, olatuek arroken kontra bultzatu zuten Donostiatik zetorren baporea; ontzia iraulita, arrantzaleak uretara erori ziren; haietako lau urperatu eta bertan hil ziren. Eskifaiako beste bi arrantzale baporearen barruan geratu ziren, kilaz gora zegoen ontziaren barruan, han osatu zen aire poltsan babestuta. Bi gizonak laguntza eskatu zuten, eskuakin egurrezko kaskoa beren indar guztiekin jo eta jo.

Laguntzera joandako beste arrantzaleak berehala jabetu ziren larritasunaz. Kartzela beldugarri hartatik askatu behar zituzten barrukoak. Hasieran ez zekiten

nola. Ordurako, don Jose medikua eta don Sotero apaiza ere bertaratuak ziren barran, bizirik zirenen osasunaz eta hildakoen arimez arduratzera. Ontzi barruko kartzelan zirenek Ama Birjinari eskatu zioten laguntza, Arantzazura oinutsik joango ziren egoera izugarri hartatik onik ateraz gero. Arrantzale indartsu batek aizkoraz zuloa egin zuen egurrean; iraulita zegoen ontzian irekitako zulotik airea sartu zenean, baporea hondora joan zen. Bi gizonetatik bakarra atera zen bizirik. Itsas istripuan bost arrantzalek galdu zuten bizia: Andres eta Inazio Iraola anaiek, Jose Ramon Olidene, Agustin Agirrek eta Teodoro Ganuzak.


Tragediatik 50 urtera, orain 20 urte (2002-04-22), baporea hondoratu zen tokiaren aurrean Orioko agintariak eta hildakoen senideak elkartu ziren: Mirari Arruabarrena alkatea, Andres Garmendia apaiza, Manuel Lasarte bertsolaria, KARKARako kazetaria eta hildakoen familiarrak. Alkateak hartu zuen

hitza: "Gaur 50 urte *Virgen Carmeli* baporea Orioko barran hondoratu eta...". Han zen batek hitza moztu zion: "Ez, baporea ez zen hondoratu, irauli egin zen".

Istripuaren egunean patroiz zihoa zen. Alkateak aldatu egin behar izan zuen hitza, gizonari ekarpena onartuta. Iraultu egin zen baporea, bai, ez zen berehala hondoratu. Gero, Manuel Lasartek bertsoak kantatu zituen gertatutakoaren oroigarri. Momentuko tentsioak urduritu egin zuen, ez zituen hitzak berak nahi bezala josi. Ekitaldia bukatzeko, plaka bat zabaldu zen, Fabian Loidi Igeldoko apaiz olerkari oriotarraren bertsoa dakarrena:


"Oriotarren kezka minena da barra, itsasorako duten ur-bide bakarra, ogi billa joateko igaro bearra, eriotza dutela zelatari zaarra".

Bertsoarekin batera, bost marinela haien izenak daude, eta XX. mendean eremu hartan hildako gainerako hemezortzianek; denera, 23. ■



**niko**  
taberna

Karta  
Pintxo tradizionalak  
Okindegia



Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27

**Lizaso**  
**Dekorazioa**



Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84  
itzilizaso@gmail.com

**OINARRI PODOLOGIA ZENTROA**



Arrantzale kalea, 63 behea  
ORIO  
943-57 53 61  
oinarri@podologia-oinarri.com  
www.podologia-oinarri.com



**MARIJO**

ILEAPAINDEGIA  
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO  
943-13 47 29

**PAKO IMAZ**



**PERTSIANAK**  
aluminioa  
motorrak  
automatismoak  
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01  
pakoimaz@hotmail.com · ORIO

**MENDIZABAL**  
**AROTEGIA**

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altxerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO  
943-83 11 75 · 645 70 84 91  
mendi@arotzi.net

Hemengo haragia.  
Etxeko produktua: tripaki, odolki,  
txekorra, txorizo, kroketa...



**HARATEGIA**  
**PATXI**  
**OLIDEN**  
**URDATEGIA**

Eusko Gudari, 25 · 943-83 00 10



Orioko  
Herri  
Ikastola  
**ORIO GARA**

Abeslari kalea, 8  
943-83 47 04  
Fax-a: 943-13 09 38  
orio@ikastola.eus  
www.oriokoikastola.eus

**Oreka**  
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa  
Eskuzko terapia · Talka-uhinak  
Masaje terapeutikoa · Osteopatia

**JARRI**  
**HEMEN**  
**ZURE**  
**IRAGARKIA**




**INDO**

**Garraio frigorifikoa**  
**Nazionala eta Nazioartekoa**

generoa




garraioak

ibilbideak



kamarak

Ubegun industriagunea, 4  
AIA-ORIO  
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

# Elkartasunaren hamaika aurpegi

Otsailaren 26an, Sahararen aldeko festa egin zuten herriko plazan, eta bildutako dirua hango errefuxiatuen kanpamentuetara bidali. Laguntza jaso duten familiei aurpegia jartzea proposatu dio KARKARARI Lamat Ali Orioko bizilagunak, hango lagunuen errealitatea hobeto ulertzeko, eta hauek dira bildu dituen argazkiak. Testua: **Karkara** Argazkiak: **Utzitakoak**.



1. Tinduf probintzia Aljeriako hego-ekialdean dago kokatuta, eta Saharako errefuxiatuen lau kanpaleku daude han: El Aaiún, Auserd, Esmara eta Dajla. Milaka lagun bizi dira kanpamentu horietan; batzuek, gainera, 30 urtetik gora daramatzate han bizitzen. Lamat Alik azaldu duenez, irudiko familia El Aaiúnen bizi da. Aita hilda dute, eta amak ez du lan egiteko aukerarik, hiru umeren kargu delako.



2. Auserd deituriko kanpalekuan bizi da familia hau. Aliren hitzetan, irudiko umeen aita, emakumearen senarra, elbarria da. Oinarrizko elikagaiak erosteko baliatu dute hemendik bidalitako laguntza.



**3.**

El Aaiún kanpamentua. Alik azaldu duenez, irudiko familia hori Sahararen eremu libre batean bizi zen lehen, haima batean. Marokoren erasoak hasitakoan, handik alde egin behar izan zuten, eta orain, kanpalekuan ez dute ezer, eskasia izugarrian bizi dira.



**4.**

El Aaiún kanpalekua. "Emakume honek ume asko ditu; zazpi, oker ez banago. Familiak ez du dirurik guztiak behar bezala hazteko. Orion jasotako dirua, batez ere, umeak hazteko zailtasunak dituzten familietara bidaltzen saiatzen gara", adierazi du Alik.



**5.**

Ausserd kanpamentua. "Irudian, amona bat eta bere biloba. Neska txikiak, bere bi ahizpekin batera, amona zaintzen igarotzen du eguna", zehaztu du Alik.

**6.**

El Aaiún kanpamentua. "Emakume horren haurra koronabirusak jota hil zen, 5 urterekin", kontatu du Alik. Azaldu duenez, izurriak gogor kolpatu zuen errefuxiatuen kanpalekua, eta osasun baliabide eskasekin aurre egin behar izan zioten.





7.

Otsailak 27 izeneko kanpamentua. "Emakumearen alaba txikiak adimen urritasuna du, eta senarra ere gaixo dago. Emakumearen ardura da biak zaintzea, eta ez dauka lanera joateko aukerarik", zehaztu du Alik.




8.

Esmara kanpamentua. "Familiak 2019an galdu zuen ama. Alaba zaharrenak 15 urte ditu, eta berak egiten ditu etxeko zaintza lanak", adierazi du Alik.



9.

Esmara kanpalekua. Familia hori ere Sahararen eremu libre batean bizi zen, gerra hasi eta handik alde egin behar izan zuten arte. "Lehen bazuten bizitzeko behar zutena: animaliak, haima... Baina, orain, hutsetik hasi behar izan dute", zehaztu du Alik.



10.

El Aaiún kanpamentua. "Emakume horrek zortzi seme-alaba ditu, eta horiek zaintzera bideratzen du bere denbora. Izan ere, senarra azken gerran galdu zuen", adierazi du Alik. Bere hitzetan, oriotarrek aurtengo udan ere izango dute haur sahararrak etxean hartzeko aukera. Interesatuak Jokin Urangarekin jarri behar dute harremanetan, 688661830 telefono zenbakira deituta. ■■■

# Norbere buruarentzat tartetxo bat

Herriz herri zaintzaileentzat autozainketarako tailerrak ematen ditu Saioa Garmendiak, eta udalak eskatuta, Orion ere horretan ari da otsailaren bukaeratik. Hamabostean behin elkartzen dira Arraunetxen, eta KARKARA saio horietako batera bertaratu da Garmendiarekin eta parte hartzaileekin hitz egitera.

Testua eta argazkiak:  
**Aitziber Arzallus.**

**A**rantxa Arrillaga. 44 urte ditu eta oriotarra da. Hiru bat urte daramatza zaharren egoitza batean lanean. Orain, etxean ere zaintzaile lanak egitea egokitu zaio. Garbiñe Ollo. 42 urte ditu, izatez hernaniarra da, baina Getarian bizi da urte askoan. Bere senarrak gaixotasun arraro bat du, eta ondorioz, mendekotasuna du. Ollo da haren zaintzailea. Inaxi Esnal. 75 urte ditu eta oriotarra da.

Bizitza guztia etxeakoak zaintzen pasatu du.

Arrillagak, Ollok eta Esnalek ez zuten elkar ezagutzen duela gutxira arte. Orain, hamabostean behin Arraunetxen elkartzen dira, beste hainbatekin batera, *Zaintzaileak zainduz* izeneko laguntza eta autozainketa tailerretan. Saioa Garmendia (Astigarraga, 1979) da saio horien gidaria, eta Orioko Udala, antolatzailea. Garmendiak jo zuen udalera herrian ikastaroa emateko eskaintza egitera, eta udalari ideia "aparta" iruditu zitzaiola esan du Ander Lucas Gizarte Zerbitzuetako langileak.

Zergatiak ere eman ditu Lucasek: "Geroz eta gizarte zaharkituagoa daukagu, eta mendekotasuna duten pertsonen zaintza eremuan hainbat aldaketa eman dira azkenaldian. Gizarte Zerbitzuen helburuetako bat da mendekotasuna duten pertsonen eta horien familien zaintza bermatzea, eta posible den heinean, zaintza hori beren etxebizitzetan gauzatzea, horretarako beharrezko baliabide guztiak jarrita. Gizarte Zerbitzuetan egiten diren lanen artean aurkitzen da zaintzaileei laguntza eskaintzea. Hori horrela, eta beste udalerrri batzuetan egiten ari direna eredu hartuta, egoki ikusi genuen herrian horrelako tailer bat martxan jartzea".

**Esperientziadun gidaria**

Garmendiak badaki zer den zaintza lanetan aritzea, 25 urtean aritu baita horretan. Gaur egun, berriz, zaintzaileei autozainketa tailerrak ematen dizkie, eta Gipuzkoako hainbat herritan ditu taldeak.

Azkenetan zeuden gaixoen zaintzaileen beharrei buruzko tesina egin zuen Garmendiak, eta ikusi zuen zaintzaileek beren burua aparkatu egiten dutela askotan: lagunekin ateratzeari uzten diote, lana ere bai batzuek, norbere familia, bizitza soziala, zaletasunak...

"Azkenean, gaixo ezkutuak bihurtzen dira". Horregatik, eta era guztietako zaintzaileei zuzenduta han eta hemen martxan dauden laguntzak aztertu ostean, tailer hauek prestatzea erabaki zuen, "zaintzaileei emateko egunerokoan beren burua zaintzeko baliagarri izan dakizkiekeen tresnak, beren antzeko egoeran dauden beste zaintzaile batzuekin konfiantzazko giroan eta atsedean hartzeko aukera izango duten gune batean".

Puntu honetara iritsita, gauza bat argi utzi nahi izan du Garmendiak: "Zaintzaileak

esaten dugunean, hirugarren adinekoen zaintzaileak etortzen zaizkigu burura, baina badira beste mota batzuetakoak ere: mendekotasuna duten hirugarren adinekoen zaintzaileak; etxeetan zaintzaile daudenak, asko eta asko atzerritarrak; mendekotasuna duten umeen zaintzaileak; mendekotasuna duten gazteen zaintzaileak... Tailer hauek zaintzaile guztientzat dira, ez soilik hirugarren adinekoen zaintzaileentzat".

Garmendiak azaldu duenez, zaintzaileak jabetzen dira beraiek ere zainduak izatea behar dutela, "baina kostatu egiten zaie zainketa lanak utzi eta beraientzat denbora hartzea". Denbora hori hartu egin behar da, ordea. "Nik beti esaten dut egunak 24 ordu dituela, eta, jarraian ez bada ere, horietatik bat gutxienez gure gustuko zerbait egiteko hartu behar dugula, jakinda gure gustuko zerbaitetan ari garela".

Saio dinamikoak izaten dira Garmendiarenak. "Beti hasten gara erlaxazio ariketa batekin, musika pixka bat jarri eta arnasketa ariketak



Saioa Garmendia.



Arantxa Arrillaga.  
Garbiñe Olló.  
Inaxi Esnal.



eginez. Ondoren, horrelako egoera batean egonez gero baliagarriak izan daitezkeen ezagutzak lantzen ditugu, baina ez ditut ematen zaintzen ikasteko prestakuntza saioak: autozainketa tailerrak dira, hau da, geure burua zaintzen ikasteko tailerrak". Ikastaroak urte guztia irauten du, bi astean behin elkartzen dira, bi orduraz, eta denboraren %80 autozainketako dinamikei eskaintzen dietela azaldu du. "Batetik, dinamikak eta jokoak egiten ditugu barruan ditugun korapiloak askatzeko; eta bestetik, estresa kudeatzeko tresnak irakasten dizkiet: giharrak erlaxatzeko ariketak, autokontrolerako teknikak, mindfulnessa...". Garmendiak garbi du: "Ikasi egin behar dugu geure burua zaintzen; egunero egin beharreko zerbait da. Nik teknika batzuk ematen ditut, eta helburua izaten da tailerretara datozenek teknika horiek aplikatzea beren eguneroko bizitzan".

Hitz egin ere asko egiten dute, batez ere zaintzaileek izaten dituzten ohiko kezken inguruan. "Heriotza izaten da asko ateratzen den gai bat, eta erru sententzia ere askotan aipatzen dute. Agian, ama zaintzea tokatzen zaizu, baina ez duzu harreman ona izan harekin, edo maite duzun norbait zaintzen ari zara, baina nekatu ere egiten zara, haserretu... Errazagoa da halako gauzei buruz zure antzeko egoeran daudenekin hitz egitea. Zaintzaileei, gainera, askotan gauza bat gertatzen zaie: bizitza sozial guztia alde batera uzten dute, baina gero, pertsona hori ez dagoenean, beren bizitzari berriro heldu behar izaten diote, eta konplikatu izaten da".

Garmendiaren esanetan, tailerretan parte hartzen dutenek oso errealitate desberdinak bizi dituzte; ondorioz, denen beharrak ere ez dira berberak. "Azkenean, taldeak berak markatzen du zer bide jarraitu edo zer landu. Elkarren artean ere informazio asko partekatzen dute, eta hori ere oso aberasgarria izaten da".

### **Harrera "oso ona"**

Lucasek nabarmendu duenez, harrera "oso ona" eduki du deialdiak, eta hasieran taldeak txikiagoa izan behar zuen arren, azkenean hamabost pertsonara arte zabaltzea erabaki dute, eskari handia egon delako. "Hala ere, jendea itxaron zerrendan geratu da. Beraz, ikusten da jendeak badituela gaiaren inguruan interesa eta laguntza jasotzeko nahia eta beharra".

Norbere burua zaintzen ikasi nahi duten hamabost lagun elkartzen dira saioetan, baina ikastaroan izena ematera bultzatu dituen arrazoi diferenteak ditu horietako bakoitzak. Arrillagak kontatu du, bere

lanbidea dela eta, denbora zeramala zaintzaileak zaintzearen kontua entzuten, eta ikusi zuenean herrian horri buruzko ikastaro bat antolatu zutela, erabaki zuela aurkezpen saiora joatea. "Gustatu egin zitzaidan Saioak nola planteatu zuen, eta izena ematea erabaki nuen. Ikusi nuen ez zela oso ikastaro teorikoa eta hori gustatu zitzaidan gehiena. Oraindik saio gutxi egin ditugu eta denborarekin joango gara gauzak argiago ikusten, baina itxura hartu nion talde terapia gisako zerbait izango zela.

Elkartuko ginela zaintzaileak bakoitza bere errealitatearekin eta geuretzako hartuko genuen momentu bat izango zela hau, geuk barruan ditugun dudak eta korapiloak askatzeko, eta besteek kontatzen dutenetik ikasteko".

Ollok, bere senarraren egoera dela eta, ikastaro gehiago ere egin izan ditu. Oraingo honetan, Garmendiak berak eman zion Orion egitekoak ziren tailerren berri, laguna duelako. "Bazekien mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko eta dirulaguntza kobratu ahal izateko ikastaroak egiten nabilela, nahiz eta laguntza hori ukatu egiten diguten, ez naizelako hirugarren adineko pertsona baten zaintzailea eta ez naizelako beraien profileen sartzen. Baina ni ere zaintzailea naiz, eta horregatik egin zidan kasu Saioak. Izena ematea erabaki nuen, horrelako saioak norberarentzat beti etortzen direlako ondo. Egia esan, adin eta profil oso desberdinetako jendea elkartu gara, baina talde giro atsegina sortu da eta oso ondo moldatzen ari gara". Garmendiak ematen dituen tailerrek hori dute bereizgarri, saioetan askotariko adin eta profilak dituzten zaintzaileek parte hartzen dutela, eta ez dela formakuntza ikastaro bat, norbere burua zaintzen ikasteko tailerrak baizik.

Esnalek, berriz, bere burua zaintzen ikasi nahi duelako erabaki zuen izena ematea. "Esan ziguten ikastaro bat antolatu zutela norbere burua zaintzen ikasteko, eta pentsatu nuen badela garaia neuretzako denbora hartzeko, beti besteak zaintzen aritu izan gara eta. Momentuz, oso gustura nabil, akordatzerako pasatzen zait denbora, eta ikasten ere ari gara: arnasketak egin behar ditugula, geure buruarekin lasai egon behar dugula, ikasi behar dugula datorrena datorren bezala onartzen, baina baita sentitzen duguna adierazten ere... Saioak esaten diguna da inportanteena dela geu geure buruarekin ondo egotea, horrela gainerakoekin hobeto egongo garelako".

Orioko Udalak baditu beste zerbitzu batzuk ere mendekotasuna dutenen familiartekoei zuzenduta: formakuntza saioak, laguntza psikologia, laguntza taldeak eta abar. Norbaitek zerbitzu horien inguruko informazioa beharko balu edo zerbitzu horiez baliatu nahiko balu, Gizarte Zerbitzuetara jo besterik ez du, gizarte langilearekin hitzordua eskatuta. ■■■



Arraunetxan elkartzen dira hamabostean behin. Parte hartzaile guztiak emakumeak dira, bat izan ezik.

**"ZAINZAILEEK BEREN BURUA APARKATZEKO JOERA DUTE ETA GAIKO EZKUTUAK BIHURTZEN DIRA"**

**UDALAK BADITU MENDEKOTASUNA DUTENEN FAMILIEI LAGUNTZEKO BESTE ZERBITZU BATZUK ERE**

# Zaharrak berri



ARITZ PARDINA

**P**asatuko ziren, honezkero, hilabete batzuk. Etxera bidean, bi pertsona nituen aurrean. Hizketan ari ziren. Batxilergoko ikasleak zirela pentsatu nuen, eskolako kontuez ari baitziren. Halako batean, hau esan zion batak besteari: "Zer inporta zait niri Platonek garai hartan esan zuena?". Galdera oso interesgarria da. Horregatik, hura labur erantzuten saiatuko naiz.

Lehenik, esango nuke, oro har, ez zaizkigula Platonek K. a. IV. mendean esan zituenak asko axola. Ohituak gaude pentsatzera gaurko arazoak gaurko baliabideek soilik konpon ditzaketela. Horregatik, bitxia bada ere, uste dugu lehenaldiak ez digula ez dakigun ezer erakutsiko, eta horregatik egiten diogu muzin. Eta hori, noski, heziketaren aurka doa. Izan ere, beharrezkoa iruditzen zaigu gure adimena zabaltzea. Halaber, muga espazialak gainditzea ere ontzat ematen dugu: ezagutza iturritzat ditugu txangoak eta bidaiak.

Aitzitik, denboran atzera egitea, orainaren mugak gainditzea, alferrikakotzat dugu. Kosta egiten zaigu ohartzea antzinaroan esperientzia berriak topa ditzakegula. Ideia horren aurka, esango nuke bi mila urtean giza espeziea ez dela asko garatu. Horregatik, Kristo aurretiko garaietatik hona bizimodua asko aldatu bada ere, uste dut antzineko atakak ditugula. Zalantzarik gabe, gaur egungo auziak ezberdinak dira antzinakoan aldean: ezin daitezke alderatu Peloponesoko gerra (K. a. 431-404) eta Ukrainako inbasioa. Dena dela, gobernarien lurraldetasuna berdintsua da orain eta duela bi mila urte.

Halako loturez konturatzeko, baliagarriak izan daitezke adibide hauek: 1.- Sofoklesen (K. a. 496-406) *Antigona* obra. Antigona bere anaia Polinizes lurperatzen du. Horrekin, Kreonte Tebasko erregearen esanari aurka egiten dio, eta horren ondorioak jasaten ditu. Tragedia honetan irudikatzen da tiraniaren eta giza eskubideen arteko talka, legea aitortzen ez duen emakume baten eskutik. 2.- Sokratesek (K. a. 470-399) erakutsi zuen elkarriketaren bitartez ideiak kontrajartzea zela pentsamendua sustatzeko ariketarik onuragarriena. Oraindik ere, solasaldiak kultur ariketa garrantzitsuak dira. 3.- Aristoteles (K. a. 384-322) lehen zientzia gizona izan zen. Hari zor dizkiogu gaur egungo ezagutza arloetan ohikoak diren zenbait sailkapen. Esaterako, Aristotelesek sortu zuen literatur lanen sarrera-korapiloa-amaiera egitura.

Adibide horien karira, argiago ikus daiteke Platon bezalako autoreez zer ikas dezakegun. Noski, bi pertsonak ez dituzte iturri horietatik irakaspen berak aterako. Horregatik, ez noa ni erantzun finko bat ematera; nahikoa zait Antzinaroaren gaurkotasuna azpimarratzea. Bestalde, nabarmenduko nuke antzinako munduaren edertasunak ere asko erakarri beharko gintuzkeela. Azken batean, ideia erabilgarriak bilatzeaz haratago, behar estetikoak asetzeko ere jo dezakegu antzinako iturrietara. ■■■

**KOSTA EGITEN ZAIGU  
OHARTZEA  
ANTZINAROAN  
ESPERIENTZIA BERRIAK  
TOPA DITZAKEGULA**

# "Orain, kalean topo egiten dugunean, noka egiten dugu"

**AINHOA MUJIKAK, ANEMI FERNANDEZ ETA IRATI TXAPARTEGI NOKA IKASTAROKO PARTAIDEAK**

Aurten ere nokaren erabilera sustatzeko saioak antolatu dituzte Orioko Emakumeon\* Ahalduntze Eskolak eta udaleko Euskara Zerbitzuak elkarlanean, eta horietan parte hartu dute Mujikak, Fernandezek eta Txapartegik. Lotsak eta beldurrak baztertu, eta noka hasteko urratsa egin dute saioei esker.

**TESTUA:** AITZIBER ARZALLUS

## **Zergatik erabaki zenuten noka praktikatzeko saioetan izena ematea?**

Batetik, sozializatzeko eta jendea ezagutzeko, eta alde feministatik begiratuta ere, emakumeak sartzeko modu polita delako; eta bestetik, noka hitz egiteko ohitura hartzeko eta horretarako inguru bat sortzeko. Bestela, gure egunerokoa, ez daukagu noka jarduteko aukera handirik, eta horrela, gutxienez, kalean topo egiten dugunean-eta, geure artean noka egiten dugu.

## **Zer landu duzue saioetan?**

Duela bi urte egin zen ikastaroan, praktika bai, baina batez ere alde teorikoa landu genuen, eta egia esan, paper artean hasteak pereza handiagoa ematen du. Aurtengoan, ordea, alde praktikoari eman zaio garrantzi handiena, dinamika oso politak jorratu ditugu, eta talde giro ederra sortu da. Denera lau saio egin ditugu, eta horixe pena, aukeran motzegi geratu zaigula.

## **Zehazki, zein motatako ariketak egin dituzue saioetan?**

Aurrengo saioan teoriari erreparatzea eman genion: noka noiz erabili behar den eta noiz ez, aditzak lehenaldian,



orainaldian, hika eta hitanoa zerk bereizten dituen... Ematen duena baino mami gehiago dauka kontuak. Gainera, herri bakoitzean bere aldaera du, eta saioetan herri dezentetako jendea elkartu gara; beraz, pentsa... Beste saio batean mahai jolasetan ibili ginen, partxisean eta, baina jolasak ere nokari buruzkoak ziren. Beste batean mendi buelta egin genuen, eta gurekin etorri ziren

**"AURTEN ALDERDI PRAKTIKOARI EMAN ZAIO GARRANTZIA ETA TALDE GIRO EDERRA SORTU DA"**

noka egiteko ohitura duten herriko bi emakume, helduagoak. Eta gelditu zaigu planen bat zintzilik ere; ea noiz daukagun berriz denok elkartzeko aukera.

## **Aurten, noka saioetarako lehendabiziko deialdia ez zen aurrera atera, eta bigarren bat egin behar izan zuten. Zer esango zeniekete herriko emakumeei?**

Datorren urtean saioetara animatzeko. Azkenean, lana dela, familia dela, geure buruarentzako denbora gutxi hartzen dugu, eta saio hauek, noka egiteko ohitura hartzeaz gain, horretarako ere balio izan dute, ostiral arratsaldeetan pare bat ordu geuretzako hartzeko eta beste emakume batzuekin egoteko. ■

## PUBLIZITATEA



**Portu**  
Erretzea - Jatetxea

Kazolirik, baserriko oilaskoa, parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g - AIA  
943-89 44 34



**SU KIA**  
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua  
Asteburuetakoa  
Oilaskoak eramateko  
Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Terraza ederra  
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1  
ORIO · 943-89 21 29



**Sagasti**  
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50  
sagasti@sagastileihokak.com  
Eusko Gudari, 7  
20810 Orio

Roberto Sagasti

Kalitazteko materialak  
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa  
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihokak.com



**Zaragueta IPI**  
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43  
012137aa@hezkontza.net



BODEGON  
**Sarasua**

info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05



**ZINKU**  
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen erreformak
- Teilatua
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe*


Ander Zinkunegi  
**667 74 02 79**



**ORANGA**  
burdindegia

**Opari, menaje eta erremintak**

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36




**Zarautz**

Hileta Zerbitzuak  
1962. urtetik zure zerbitzura

**24 ordu zure zerbitzura**  
Beilatokia · Lekualdatzeak ·  
Eginbide guztien tramitazioa

Araba kalea 35 · ZARAUTZ  
943-89 49 37  
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus



**Sinergia**  
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea · ORIO  
943-13 05 77 · 685 71 85 95  
sinergiafisioterapia.com

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupezioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesoaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.



# Norberaren hazkuntza, ongizaterako bide



**TESTUA:** AMAIA GOZATEGI

Amaia Gozategi Urbietta naiz, eta baliabide, tresna eta teknika desberdinen bitartez bidelagun lanak egiten ditut. Bereziki, osasun prozesu larrietan daudenei laguntzen diet, eta baita heriotza prozesuetan daudenei ere; bai hiltzen ari direnei, bai haien familiakoei eta lagunei.

Azken harmarkadan, ikaragarriko booma izan dute norberaren hazkuntzarako teknikek, eta batzuetan, eskaintza horretara gerturatu nahia izaten denean, ez da erraza izaten aukeraketa egitea. Beste arlo askotan gertatzen den bezala, honetan ere modak daude, eta ematen du momentuan modan dagoen teknika hori praktikatzan ez badugu, *new age* honetatik kanpo geratzen garela; edo sentipen xeble hori sentitu dezakegu.

Bakoitza bakarra garen heinean, gai hauetan 25 urte inguruko nire esperientzia ardatz hartuta, esan dezaket ez dagoela guztientzat balio duen teknika bakar perfekturik, bakoitzaren

konstrukzio mapa oso anitza baita.

Bizi garen erritmoa dela eta, gero eta handiagoa da geure burua lasaitzera eta estresa kudeatzera bideratutako tresnen eskaintza, baina, askotan, geure buruarentzat denbora hartzea da zailena.

Ildo honetatik etorri da, adibidez, mindfulness deritzon tresna, azken boladan horren ezaguna egiten ari dena, meditazioa ardatz hartuta geure burua lasaitzen lagun diezagukeena.

Sustraitze meditazioak ere gero eta eskari handiagoa du. Nolabait esateko, gure energia mentala jaisten laguntzen digun zerbait aurkitzea gero eta behar gehiagorekin sentitzen dugulako, mila erreboluziotara doan buru hau nola edo hala frenatzeko beharrez. Hainbeste entzuten dugun "hemen eta orain" hori, instante batean bada ere sentitu ahal izateko eta horrek dakartzan onurez gozatzeko.

Ikaragarria da gure gorputzak daukan gaitasuna espazio/ denbora bat ematen zaionean berez berronekatzeko; beraz,

hori ardatz hartuta, bide horretatik doazen teknikak oso gomendagarriak izango lirateke. Teknika batzuk estatikoak dira; besteek, aldiz, mugimendua erabiltzen dute onura puntu horretara iristeko. Bakoitzaren nahien eta izaeraren arabera, aukera zabala dago.

Baina batzuetan, barruko korapiloek leku handia hartzen dutenean, bidelagun edo terapeutengana jotzeko aukera ere hor dago. Adibidez, azkenaldian jende asko ari da dolu terapeutengana jotzen.

Gure barruko korapiloak pixkanaka-pixkanaka askatzen lagunduko digun norbaiten figura izan daiteke hori, goxogoxo eta bakoitzaren erritmoa errespetatuz, gurekin ibilbide sakona egingo duen norbait, egoera askotan mina hor mantenduko den arren, sufrimendua ekiditen lagunduko diguna. Norbaitekin gure barruak kudeatzeko behar hori, jakinda neutraltasunetik eta epaitu gabe egingo duela, horrekin sentitu ahal dugun askatasuna dela askotan ongizatearen ardatz. ■

22. <sup>azk</sup> korrika

HITZ EKIN

bertako  
igogailuak | ascensores

GIPUZKOA  
943 903 450

EUSKARA, GURE HELBURU KOMUNA [www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)




HALI DA LIRDINGA!

# SUDOKUAK

Beheko sudoku hauek gaineko irudiko laguntxoekin ibilerarekin dute zerikusia. Barraskiloa ASTIRO doa beti, eta erbia, berriz, ARIN. Osa itzazu bi sudokuak, hutsik dauden laukietan behar diren hizkiak idatziz (seiko sudokuan A, S, T, I, R eta O, eta laukoan A, R, I eta N).

Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



# BILATU

Animalia hauetatik bat ez dago mundu-mapan. Zein?




# HANDITIK TXIKIRA

Ordena itzazu hartz hauek handitik txikira, 1etik 9rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikienari 9).



NOLA SORTZEN DIRA UMEAK?

Nola lortzen dira erantzunik gehienak? GALDETUZ, jakina. Hitz ederra, sudoku handi hau osatzeko. Zortzi hizki dituzu hutsuneak betetzeko (G, A, L, D, E, T, U eta Z).





## Hara!

Gaixoak pinguinoak!  
Laster beren bizimodua egokitu beharko dute, Lurraren tenperatura igotzen ari baita. Beno, baina hemen ez dirudi horren gaizki daudenik ere, ezta? Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 16 dira guztira.



## DOMINOAN



Bete itzazu lauki zuriak domino-zati honek zentzua izan dezan.



Eguzkia · Lurra · ilargia · meteoritoa · planeta · izarra

Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)

IRAGARKI SAILKATUAK

**ALOKAIRUA**

Autokarabana eta karabanentzat plazak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Aia-Orio. Tel. 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko kalen. Tel. 690 27 28 42.

**LAN BILA**

Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo adineko pertsonak zaintzeko. Neska arduratsua eta berehala lanean hasteko prest. Telefonoa: 627 61 37 83.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketara lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel. 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel. 641 44 60 70.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel. 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasanari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel. 602 08 98 86.

Iragarkietarako bokoak. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com). Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanda. Tel. 643 85 78 54.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketarako edo tabernako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo orduka. Telefonoa: 627 09 07 06.

Neska gaztea haurrak eta adinekoak zaintzeko prest, irailetik aurrera. Esperientzia dut zeregin horietan eta baita prestutasun osoa ere. Telefonoa: 695 37 82 60 Estrella Reyes.

**SALGAI**

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguria ordaindua du. 3.500 euro. Tel. 657 77 45 11.

Zerrama, apotea, txerrikumeak eta txekorak salgai Usurbilgo baserri batean. Tel. 607 66 86 03. Joxe Krux.

**BESTELAKOAK**

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel. 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel. 657 71 96 14.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	05:30 eta 17:50	11:35 eta 23:49	●
2	06:05 eta 18:21	12:08	●
3	06:38 eta 18:51	00:24 eta 12:41	●
4	07:10 eta 19:20	00:59 eta 13:13	●
5	07:42 eta 19:51	01:33 eta 13:45	●
6	08:15 eta 20:25	02:08 eta 14:18	●
7	08:53 eta 21:05	02:47 eta 14:55	●
8	09:42 eta 22:02	03:33 eta 15:43	●
9	10:56 eta 23:30	04:38 eta 16:57	○
10	12:39	06:13 eta 18:40	○
11	01:07 eta 14:01	07:41 eta 19:59	○
12	02:17 eta 14:54	08:40 eta 20:52	○
13	03:06 eta 15:34	09:23 eta 21:32	○
14	03:46 eta 16:10	09:59 eta 22:09	○
15	04:23 eta 16:45	10:34 eta 22:44	○
16	04:59 eta 16:20	11:08 eta 23:20	○
17	05:36 eta 17:55	11:43 eta 23:58	○
18	06:14 eta 18:33	12:21	○
19	06:54 eta 19:13	00:38 eta 13:00	○
20	07:38 eta 19:58	01:22 eta 13:43	○
21	08:28 eta 20:50	02:10 eta 14:32	○
22	09:27 eta 21:57	03:05 eta 15:30	●
23	10:48 eta 23:21	04:14 eta 16:46	●
24	12:27	05:41 eta 18:19	●
25	00:51 eta 13:50	07:10 eta 19:41	●
26	02:05 eta 14:51	08:20 eta 20:42	●
27	03:02 eta 15:37	09:12 eta 21:29	●
28	03:48 eta 16:16	09:55 eta 22:10	●
29	04:28 eta 16:50	10:32 eta 22:48	●
30	05:04 eta 17:22	11:06 eta 23:24	●

FARMAZIAK-APIRILA

**ZARAUTZ**

9, 10 eta 28. ETXEBERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98

5 eta 20. ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83

12, 29 eta 30. GALLO: Zigorria kalea, 17 / 943-13 40 19

6, 21 eta 27. GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19

25. IRIARTE: Zinkunegi, Pilarxo Enea / 943-13 29 70

2, 3, 4, 8 eta 11. ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70

1, 7, 13 eta 22. LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14

23, 24 eta 26. REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83

14, 15, 16, 17 eta 19. ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

# AGENDA

## AIA

### APIRILAK 2, LARUNBATA

**Antzerkia:** *Frontona. Frontoian.*

### APIRILAK 9, LARUNBATA

**Hitzaldia:** *Espedizioen eta proiektuen gaineko berbaldia, Alex Txikonen eskutik. Kultur etxean.*

### APIRILAK 10, IGANDEA

**Jaia:** XVIII. Txakolin Eguna. *Herriko plazan.*

### APIRILAK 23-24

**Azoka:** Landare Berezien Azoka. *Iturrarango Parke Botanikoan, egun guztian.*

## ORIO

### APIRILAK 1, OSTIRALA

**Bakarrizketa:** *Nekatutak, Antton Telleriaren eskutik. Kultur etxean, 22:00etan.*

### APIRILAK 2, LARUNBATA

**Kontzertuak:** *Odolaren mintzoa eta Neona. Etxeluzen, 21:00etan.*

### APIRILAK 7, OSTEGUNA

**Liburu aurkezpena:** *Escalantes. Etxeluzen.*

### APIRILAK 8, OSTIRALA

**Haurrentzako antzerkia:** *Alpistegia. Kultur etxean, 18:00etan.*

### APIRILAK 11, ASTELEHENA

**Hitzaldia:** *Dolua, Izaskun Andonegiren eskutik. Kultur etxean, 18:30ean.*

### APIRILAK 22, OSTIRALA

**Kontzertuak:** *Sodade eta Kurkuma. Etxeluzen, 21:00etan.*

### APIRILAK 27, ASTEAZKENA

**Hitzaldia:** *Ontzigitza Orion XVI. mendetik XX. mendera. Arraunetxen, 19:00etan.*

### APIRILAK 28, OSTEGUNA

**Hitzaldia:** *Energia burujabetza, Alazne Arrutiren eskutik. Etxeluzen, 19:00etan.*

### APIRILAK 29, OSTIRALA

**Antzerkia:** *Oihana. Kultur etxean, 19:00etan.*

**Kontzertua:** *Intza. Etxeluzen, 21:00etan.*


### APIRILAK 30, LARUNBATA

**Jaia:** *Erraustegia plazara: Lau marru, mila egi! Etxeluzen, egun guztian.*

# NON DAGO KARKARA?

Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutututa aurkitu behar da, eta erantzuna [karkara@karakara.eus](mailto:karkara@karakara.eus) e-posta helbidera bidali apirilaren 22a baino lehen. **Saria:** Irrika Gluten Free-ren otarra banatuko dugu. Karkara komunikazio taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Martxoko Karkara aldizkarian Karkara pertsonaia non ezkutututa zegoen asmatu behar zen. 33. orrialdean zegoen ezkutututa, eta **Josune Zabaleta, Idurre Lizarralde eta Inaxio Andres** bazkideak izan dira irabazleak.



## Puntua jarrita

Bertsolaria: Malen Gurrutxaga.  
Doinua: Haizeak bidali du.

**1**  
**Geldirik egoteko zu ez zinen jaio**  
bai, hori egia da  
eta ze arraio  
horri gazte izatea  
deitzen omen zaio  
ni bixi-bixia naiz  
ta zu baino guaio.

**2**  
Eskalada egiten det  
eta da earra  
eskubaloian ere  
ez naiz izan zaharra  
inglesean badaukat  
hobetu beharra...  
Beste gauzetan ere  
jartzen det indarra.

**3**  
Bertso eskolan ere  
nolako jardunak  
jolasean pasatzen  
ditugu egunak  
handitan gu izango  
gara txapeldunak  
aupa Errikotxia  
ta hango lagunak!

**Hurrengo bertsolaria:**  
Haitz Arregi.  
**Puntua:**  
Aurten bertso eskolan  
lehenengo urtea.

**Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Malen Gurrutxagari jarri dio puntua Iker Gurrutxagak: "Geldirik egoteko zu ez zinen jaio". Hurrengoari ere jarri dio puntua.**



SAIDA PERONA

# DOAN EZ DA DEBALDE



Euskararen plaza gara, herriaren irudia  
eta komunitatearen ahotsa  
ELKARREN BEHARRA DUGU

**EGIN BAZKIDE**

bazkide@ukt.eus 943-81 38 41

